

GAU EURITSUA ZEN, kaleek ispiluak ziruditen, guztia islatzen baitzuten. Euskaldunak hogeita hamar libera zituen patrikan, eta aberats sentitzen zen. Jendeak esaten zion bere modu xalo eta gordinean marrazkilari aparta zela. Ez ziren konturatzen postalak kopiatzen zituela. Azkeneko koadrogatik hogeita hamar libera ordaindu zizkioten. Pozez gainezka zegoen, eta ospatzeko gogoz. Plazera iragartzen zuten argitxo gorri horietako baten bila zebilen.

Ama itxurako emakume batek zabaldu zuen atea, baina begi hotzak zuzenean gizonaren oinetakoetara bideratzen dituen horietakoa, horrela antzematen baitzion gizonak zenbat ordain zezakeen plazeraren truke. Ondoren, atsegin hutsez, emakumeak praktetako botoietan pausatzen zituen begiak tarte batez. Aurpegiak ez zitzaizkion axola. Bizitza osoa eman zuen gizonaren anatomiako eremu jakin horrekin tratuan. Bere begi handiek, artean distiratsu, prakei begiratzeko modu sarkorra zuten, gizonaren ondasunen neurria eta pisua kalkulatzeko ahalko balute bezala. Begirada profesionala zen; beste prostituzio-etxeetako jabeek baino zorrotzasun handiagoz parekatu nahi zuen jendea. Nor norekin elkartu aholkatzen zuen, eta eskularruak binaka jartzen dituenak bezainbesteko esperientzia zuen. Praken bidez bezero bat

neurtzen ahal zuen, eta bikain emanen zion eskularru bat bilatzen zion, ezin hobeki doituko zitzaiona. Ez zen plazerik eskularrua zabalegi geratzen bazen, ezta estuegia bazen ere. Mamanek uste zuen dagoeneko jendea ez dela ohartzen doitze on baten garrantziaz. Berak jakintza hura zabaldu nahi izanen zuen, baina jendea gero eta axolagabeagoa zen, ez ziren Maman bezain zorrotzak. Gaur egun, gizon bati eskularru zabalegi batean ibiltzea egokitzen bazaio, apartamentu huts batean bezala alderrai, ahal duen hobekien egiten saiatuko da. Bandera baten gisara astinduko du zakila, eta barrenak berotuko dizkion benetako besarkada esturik gabe aterako du. Edo listuaren laguntzaz irristatuko du barrura, ate itxi baten azpitik sartu nahi duenak bezainbeste bultzatuz, barrunbe estuetan larri, eta hor barruan egon ahal izateko are gehiago uzkurtuz. Eta emakumea plazeragatik edo plazer plantak egiten dituelako gogo biziz barre egiten hasiko balitz, zuzenean kanporatu beharko luke gizonak, ez legokeelako tokirik barreak sorturiko hanpatzeen ondorioz. Jendea doitze onei buruzko ezagutza galtzen ari zen.

Haren prakei finko begiratu ondoren baino ez zuen Mamanek euskalduna ezagutu, eta irribarre egin zion. Hala da, bai euskalduna bai Maman, biak ziren ñabardura zale amorratuak, eta emakumeak bazekien euskalduna ez zela aise asetzekoa. Zakil apetatsua zuen. Postontzi itxurako bagina baten aurrean, matxinatu egiten zen; hodi itogarri baten aurrean, atzera egiten zuen. Emakumeen bitxiontzien *connoisseur* bat zen, gourmet bat. Belusaz estaliak maitezituen, ero-soak, maitekorrak eta moldagarriak. Mamanek beste bezero batzuei baino arreta handiagoz begiratu zion. Euskalduna gogoko zuen, eta ez bakarrik haren soslai klasikoagatik, alegia, sudur labur, almendra itxurako begi, ile beltz distiratsu, ibilera leun eta irristakor eta keinu geldoengatik. Ez zuen gogoko ez bufanda gorriagatik ez buru gainean pikarokeriaz alde batera okertutako bonetagatik. Ezta emakumeekin zerabiltzan manera limurtzaileengatik ere. Gogoko zuena *pendentif* bikain hura zen, kirten noble

hura, haren erantzuteko gaitasun sentibera eta nekaezina, zakil haren sinpatia, adiskidetasuna eta hedatzeko ahalmena. Maman halakorik egundo ikusi gabea zen. Euskaldunak mahai gainean jartzen zuen batzuetan, zorroa bete diru uzten duenak nola, eta zakilarekin joka hasten zen arreta bereganatu nahian bezala. Naturaltasunez ateratzen zuen, beste gizon batzuek bero direnean berokia kentzen duten gisan. Bazirudien hura hertsirik eta estu zuenean deseroso sentitzen zela, eta aireztatu beharra zuela, besteen aurrean miresgarri agertu.

Mamanek behin eta berriz hartzen zuen atsegin gizonen ondasunei begiratzeko ohiturarekin. Gizonak pixatokitatik ateratzen zirenean, botoiak lotzen ari zirela, zakil urreztauren baten azken dirdira harrapatzeko zortea izaten zuen, edo beltzaranen bat, edo berak nahiago zuen aho finen bat. Bulebarretan, axolagabekeriaz loturiko botoiak mirestekoa aukera izaten zuen, eta haren begiek, zoli ikusteko dohaina baitzuten, irekigune itzaltsua zeharkatzen ahal zuten. Are eta hobeki etxebizitza bateko hormaren aurka barrua husten ari zen eskale bat ikusten bazuen bere zilarrezko azken objektua balitz bezala eskuan zakilari pentsakor eusten.

Norbaitek pentsa lezake Mamanek uko egiten ziola plazer hori bakardadean bere egiteari, baina ez zen horrela. Bere etxeko bezeroei desiragarri iruditzen zitzairen, eta ezagun zituzten beste emakumeen aldean zituen bertute eta abantailak. Mamanek zuku benetan zoragarria sortzen ahal zuen amodioaren oturuntzarako; beste emakumeek, ordea, artifizialki lortu behar zuten. Mamanek jaki samur baten irudipen bizia ematen ahal zien gizonei; hortzaren azpian biguna zen jakiaren irudia, edonoren egarria asetzeko aski umela.

Bezeroek, beren artean, usu aipatzen zuten zeinen ongi zekien Mamanek bustitzen saltsa finetan bere oskol-arrosa koloreko mokaduak, zer tinkoak ziren haren eskaintzak, danbor baten gisan. Oskol biribil horri heltzen ahal zitzaion behin, bitan, eta aski zen Mamanen esentzia gozoa agertzeko, haren neskek nekez sortuko zuten zerbait: itsaski usaina

zuen ezia, aldaken arteko zulo femeninorako bidea bisitari arrarentzako gozamen bihurtzen zuena.

Euskaldunak gustuko zuen. Hezegarria, bustia, beroa eta esker onekoa zen; oturuntza bat, finean. Mamanentzat ere egundokoa zen, eta ahal bezainbeste saiitzen zen.

Euskaldunak bazekien Maman ez zela prestaketan luzatzekoa. Egun osoan elikatu zuten begietako joan-etorriek, gizonaren gorputzaren erdialdea baino gorago edo behe-rago sekula egiten ez zutenek. Praken irekigunera zeramatzan beti begiak. Zimurtutakoak aztertzen zituen, *séance* azkar baten ondoren presaka loturikoak; finki lisaturikoak, oraindik estutu gabeak. Eta orbanak, o, amodioaren orbanak! Orban bitxiak, Mamanek lupa bidez begiratuko balu bezala antzeman zitzakeenak. Hor, prakak nahikoa jaitsi ez direlako sortuak, edo, beste toki horretan, imintzioka zakila berezko jarrerara une okerrean itzuli delako sortuak, hor zetzan orban bat; bitxiztatua, urtu den mineral baten antzera izpi distiratsu ñimiñoak zituelako, eta azukreztatua, arropa zurruntzen zuen zera bat baitzeukan. Orban eder bat, desiraren orbana, izan gizonaren iturriak han lurrina bezala zipriztindua, izan emakume kartsuegi eta bere onetik ateratako batek han itsatsitakoa. Mamanek ekintza burututako tokian hastea maite zuen. Oso erraz kutsatzen zen; orban txiki horrek hankarte berotu zion oinez zihoala. Botoi erori batek gizona haren mende zegoela sinestarazten zion. Batzuetan, jendetzaren artean, besoa luzatu eta ukitzeko kuraia izaten zuen. Eskua bizitasun ikaragarriaz mugitzen zuen, lapur baten antzera. Inoiz ez zuen leku okerra haztzen edo ukitzen, zuzenean egiten zuen gerrikoaren azpira, non konkor leunak nabari baitzitzakeen, eta batzuetan, ezustean, baita makila lotsagabe bat ere.

Metroan, gau ilun eta euritsuetan, jendez beteriko bulebarretan edota dantza aretoetan, Mamanek gozatu egiten zuen haiek neurtzen eta armak hartzera deitzen. Zenbatetan erantzun zioten deiari? Zenbatetan agertu zituzten armak hark eskua hurbiltzean? Zutik horrela lerrokaturiko armada

bat nahi izanen zukeen, hura konkistatzen ahal zuten arma bakarrak eskuan. Esna baina ametsetan, armada hori ikusten zuen. Maman jenerala zen, eta haien aurrean desfilatzen zuen, luzeei eta ederrei ohore-domina jartzen zien, eta mires-ten zuen gizon bakoitzaren aurrean geldialdi bat egiten zuen. O, nahi bai, Katalina Handia izan eta ikuskizuna saritzeko bere aho egarrituarekin musu eman, musu bakar bat, puntan baino ez, lehenengo plazer malkoa sorrarazteko aski!

Mamanen abenturarik bikainena soldadu eskoziarren desfilea izan zen, udaberriko goiz batean. Tabernan edaten ari zela, gizon eskoziarrei buruzko istorio bat entzun zuen.

—Gazte hartzen dituzte —zioen gizon batek—, eta horrela ibiltzeko trebatzen dituzte. Ibilera berezia da. Zaila, benetan zaila. Bada *coup de fesse* bat, kulunka bat, aldakak eta katanarrua aldi berean mugiarazten dituena. Katanarrua ez bada kulunkatzen, akastzat hartzen da. Ballet dantzari batenak baino konplexuagoak dira eskoziarren urratsak.

Mamanek pentsatu zuen: «Katanarruak kulunka egiten duen aldiro, gonak kulunka egiten din, eta, noski, gainontzeko zintzilikarioek ere kulunka egin beharko dituen». Eta bihotz zahartua hunkitu zitzaion. Kulunka. Kulunka. Guztiak aldi berean. Horra hor armada ideal bat. Halako armada batean sartzea gustatuko litzaioke, zeregina edozein izanik ere. Bat, bi, hiru. Aski hunkiturik zegoen zintzilikarioen kulunkarekin, eta, halako batean, tabernako gizonak segitu zuen:

—Eta, badakizu, azpian ez daramate deus.

Ez zeramaten deus azpian! Gizon sendoak, halako gorputz lerdan eta mardulak! Buruak tente, hanka indartsu biluziak eta gonak; bistan zenez, horrek emakume bat bezain ahul egiten zituen. Gizon handi mardulak, emakumeen gisara desiragarri eta azpialde biluziarekin. Mamanek galtzada-harri bihurtu nahi zuen, urrats bakoitzarekin kulunkatzen zen «katanarru» ezkutuari gona laburraren azpitik begiratu ahal izateko. Itotzeko zorian sentitu zen. Tabernan bero handiegia egiten zuen. Haizea behar zuen.

Desfilea adi-adi ikusi zuen. Eskoziarrek egiten zuten urrats bakoitza bere gorputzaren barruan sentitzen zuen, eta dardara sorrarazten zion. Bat, bi, hiru. Haren sabelalde gaineko dantza, basa eta uniforme, larruzko katanarrua pubiseko ilearen gisan kulunkan. Maman uzaileko egun bat bezain bero zegoen. Jendetzaren aurrealdera ukondoka bidea egin, belauniko jarri, eta zorabiatzen zelako plantak egitea besterik ez zuen buruan. Toles ez eginiko gona koadrodunen azpian desagertzen ziren hankak besterik ez zuen ikusi, ordea. Ondoren, poliziaren belaunaren aurka etzanda zegoela, begiak gora eraman zituen, krisi bat irudikatzeko. Desfileak atzera egin eta haren gainetik ibiliko balitz, sikiera!

Izan ere, Mamanen bizigarria ez zen sekula zimeldu. Behar bezala elikatzen zuen. Gauean samur izaten zuen haragia, hainbeste non bazirudien egun osoa su motelean irakiten egona zela, patxadaz.

Haren begiek bezeroetatik beretzat lan egiten zuten emakumeetara egiten zuten. Haien aurpegiak ere ez zuen Mamanen arreta bereganatzen, baizik eta gerritik beherako siluetak. Bere aurrean jiratzeko eskatzen zien, eta haragiaren tinkotasuna sentitzeko zaplada txiki bat jotzen, atorra jantzi aurretik.

Melie ezagutzen zuen, zinta baten gisara gizonen inguruan kiribiltzen zena hainbat emakumek ferekatzen zutelako irudipena emateko. Nagia ezagutzen zuen, lokartu itxurak egin eta gizon lotsatiei beste inork eman ezinezko kuraia ematen ziena, bera ukitzen, eskuz esku ibiltzen eta arakatzten uzten baitzien, hori egitean inolako arriskurik egonen ez balitz bezala. Bere gorputz handiak sekretuak ongi baino hobeki ezkututzen zituen toles oparoetan, baina emakumearen nagikeriak sekretuok azaleratzen uzten zien hatz kuxkuxeroei.

Mamanek ezagun zuen emakume lirain eta sutsua, gizonen eraso egin eta gertatutakoaren biktima bihurtzen zituena. Gizon errudunen artean alimaleko arrakasta zuen. Bortxa zitzen uzten zioten, beren kontzientzia baretzeko. Horre-

la, «nire gainera etzan, eta behartu egin ninduen» eta antze-koak esaten ahal zizkieten emazteei. Buruz gora etzaten ziren, eta emakumea gainean esertzen zitzairen, zaldi baten gainean nola, eta presioarekin keinu saihestezinetara bultzatzen zituen, gizontasun zurrunaren gainean lauhazkan, edo leun trostan, edo urrats luzeetan. Azpiko biktimen saihesten kontra estutzen zituen belaun indartsuak, eta, zaldun noble baten gisan, gorputza dotoreziaz altxatzen eta erortzen uzten zuen, pisu oro gorputzaren erdialdean bilduz, eta, noizean behin, zaplada bat ematen zion unean uneko gizonari, abiadura eta bulkadak azkartzeko, horrela emakumeak bizia-go sentitzeko hankarteko indar basa. Nola zamalkatzen zen animalia-aren gainean, hankekin jo eta gorputz tentearekin bultzatu bitartean, animaliak aparra botatzen zuen arte, eta garrasi eta zapladekin zirikatzen zuen orduan, lasterrago eta lasterrago joan zedin lauhazka!

Mamanek ezagun zituen hegoaldetik zetorren Vivianeren xarma deigarriak. Vivianeren haragiak txingar gorria zirudien, kutsakorra, ukitze hutsarekin azal hotzena ere berotu zezakeena. Suspensea eta jolasa aise zerabiltzan. Maite zuen lehenik eta behin bidetea esertzea, gorputza garbitzeko zeremoniarako. Eserleku txikiaren gainean hankak zabaltzen zituen: ipurmasail irtenak zituen, bi elutxa handi bizkarrezurraren bukaeran, aldaka marroi urrezta-tuak, zabal eta sendoak, zirkuko zaldiaren atzealdea bezalakoak. Esertzerakoan, bihurturak hanpatzen zitzaizkion. Bizkarrari begiratzeaz nekatzen bazen, gizonak parez pare begiratzen ahal zion, eta ikusi nola ematen zuen ura pubiseko ileetan eta hankartean eta nola zabaltzen zituen ezpainak arretaz xaboitu bitartean. Apar zuriak estaltzen zion alua, ondoren berriz ura eman eta ezpainak arrosa distiratsu agertzen ziren. Batzuetan, ezpainak patxadaz aztertzen zituen; egun hartan gizon anitzekin egona bazen, apur bat puzturik zituela nabaritzen zuen. Euskaldunak maite zuen Viviane horrela ikustea. Mina ez handitzeko, alua leunago lehortzen zuen emakumeak halakoetan.

Euskalduna halako egun batez heldu zen, eta erretasunari etekina ateratzen ahal ziola pentsatu. Bestela, Viviane axolagabe, geldo eta epel egoten zen. Koadro klasikoren bateko gorputzak bezala etzaten zen, haren bihurguneetako goitibeherak nabarmentzeko moduan. Alde batera etzaten zen, burua besoan bermatuz, eta haren kobre-koloreko haragia baretu egiten zen batzuetan, esku ikusezin baten laztanak sorturiko uhin erotikoen azpian biguntzen ariko balitz bezala. Horrela eskaintzen zuen bere burua, galant eta nekez berotzekoa. Gizon gehienak ez ziren saiatu ere egiten. Ahoa mespretxuz aldentzen zuen haiengandik, eta gorputza gehiago eskaintzen zien, baina ezaxola. Hankak zabaltzen ahal zizkieten, eta nahi adina begira geratu; baina ez zuten lortzen hark zukurik isurtzerik. Alta, gizona bere barruan sartzarekin bat, laba beroa isurtzen ariko balitz bezala jokatzen zuen Vivianek, eta bortizki bihurrikatzen zen, plazeraz gozatzen duten emakumeak baino gehiago, keinuok plantak besterik ez baitziren. Pitoi baten gisan bihurritzen zen, eta noranahi astinduka hasten, erreko edo joko balute bezala. Bere gihar boteretsuek desira basenak pizteko indarra ematen zieten mugimenduei. Gizonak borrokatu egiten ziren bihurrikatze horiek geldiarazteko, torturapean zirudien emakumea lasaitzeko, gizonaren inguruan egiten zuen dantza orgiastikoa baretzeko. Ondoren, bat-batean, gogoak ematen zionean, lasai etzaten zen. Perbertsio horrek, gizonen gero eta amorru handiagoaren erdian, hoztea eta plazera atzeratzea lortzen zuen. Haragi bareko masa bihurtzen zen. Zupatzen hasten zen orduan, lokartu aurretik erpurua zupatzen duenak nola. Utzikeria horrek gizonak gogaitzen zituen. Emakumea berriz berotzen saiatzen ziren, nonahi ukituz eta musukatuz. Vivianek amore ematen zuen, sorgor.

Euskalduna bere txandaren zain zegoen. Vivianeren garbiketa zeremoniatsuari beha egon zen. Hamaika erasuren ondorioz hanpatua zuen. Mahai gainean uzten zioten dirua gutxi izanagatik ere, Vivianek ez zuen sekula gizonik asegabe uzten.



Zertxobait puztuak zituen ezpain handi eta mamitsuak, ordurako urratuegiak, eta su arin batek erretzen zituela zirudien. Euskalduna oso adeitsua zen. Oparitxoa mahai gainean jarri zuen. Arropak erantzi zituen. Baltsamo bat, kotoia, benetako aringarria hitzeman zion. Samurtasun keinu horiek lasaitu egin zuten prostituta. Euskaldunak emakume baten gisan laztandu zuen. Hor ukitze txiki bat bakarrik, sua leundu eta lasaitzeko. Emakumearen azala ijito batena bezain iluna zen, leuna eta garbia, hautsak ematen zituenean ere. Euskaldunaren hatzak sentikorrak ziren. Nahigabe laztantzen zuela zirudien, doi-doi ukitzen, eta zakila Vivianeren sabelaren gainean uzten zuen, jostailu bat balitz bezala, hark mirets zezan. Mintzatzean, zakilak erantzuten zuen. Sabelak dardara egiten zuen zakilaren pisuagatik, apur bat handitzen zena emakumeak azal gainean senti zezan. Euskaldunak ez zuenez egin hura behar zen lekuan biltzeko eta ezkutatzeko inolako mugimendu presazkorik, Vivianek gorputza zabaltzeko aukera izan zuen, bere burua abandonatzeko.

Beste gizonen sabelkeriak eta egotismoak, emakumea kontuan hartu gabe beren burua asetzeko irrikak, etsaitasunezko sentimendua pizten zioten Vivianeri. Baina euskalduna gizon adeitsua zen. Emakumearen azala satinarekin alderatu zuen, ilea goroldioarekin eta usaina egur preziatuen esentziarekin. Orduan, irekigunean jarri zuen zakila, eta eztiki esan zuen:

—Min ematen dizu? Ez dut sartuko, min baduzu.

Gozotasun horrek hunkitu egin zuen Viviane.

—Min pixka bat ematen du, baina saia zaitez.

Zentimetro eskas baino ez zuen sartzen aldiro.

—Min duzu? —aterako zuela esan zion. Baina Vivianek, orduan, aurrera egin zuen.

—Punta bakarrik. Saia zaitez berriz.

Bizpahiru zentimetro barneratu zuen zakilaren muturra, berriz gelditu aurretik. Horrek aski denbora eman zion Vivianeri zakila sentitzeko, beste gizonek ematen ez zioten

denbora. Bere barruko urrats txiki bakoitzarekin, haragiaren paretan artean zakila izatea zeinen atsegingarri zitzaion ohar zitekeen, zeinen ongi betetzen zuen barrua, ez estuegi ez askeegi. Berriz geratu zen, eta ondoren aurrera egin zuen apur bat. Vivianek denbora izan zuen beterik egotea zer atsegina zen sentitzeko, zer ongi zetorkion arrakala emeari eutsi eta barruan gordetzen ahal zuen zerbait izatea; zerbaiti eusten sentitzeko, berotasuna konpartitzeko eta bi hezetasunak nahasteko plazera. Berriz mugitu zen euskalduna. Suspensea. Atzera egiterakoan, hutsunea nabaritzen zuen; kasik segituan zimeltzen zitzaion haragia. Vivianek begiak itxi zituen. Poliki barrura berriz egitean, bazirudien gizonaren zakilak uhinak botatzen zituela noranahi; barrunbeetako zoko sakonenei ohartarazten zieten korronteak ziren, zerbait ekzanda eginen zuela, pareta biguneko tunelean doi barneratzeke eta sakontasun gosetiek irensteko moduko zerbait heltzear zela, sakontasun horietan kirio urduriak zain zituen artean. Emakumearen haragiak gehiago eta gehiago eskatzen zuen. Barrurago sartu zuen gizonak.

—Min ematen dizu? —atera egin zuen. Viviane penatuta zegoen, baina ez zuen aitortu nahi izan nola zimeltzen zitzaion barrua gero eta handiagoa zen gizonaren presentziarik gabe.

Erregutu behar izan zion:

—Sartu berriz.

Gozoa zen. Euskaldunak barruaren erdibidean paratu zuen, Vivianek sentitu bai, baina eutsi eta benetan estutu ezin zion puntuan. Bazirudien han utziko zuela betiko, erdibidean. Aurrera egin nahi zuen eta hura irentsi, baina tentazioari eutsi zion. Oihu egin nahi zuen. Gizonak ukitzen ez zuen haragia sutan zegoen, hurbiltasuna senti zezakeelako. Barrunbeen sakoneko haragiak zeharka zezaten eskatzen zuen, eta barrura bihurritzen zen, zurrupatzeko prest. Pareta haragitsuak itsas anemonen gisara mugitzen ziren, zakila barrura xurgatzeko saiatzen, baina, zegoen tokitik, plazer jasangaitzeko olatuak baino ezin zituen bidali. Ema-

kumearen aurpegiari beha, euskalduna berriz mugitu zen. Ahoa zabalik zuela ikusi zuen. Vivianek gorputza altxatu nahi zuen, zakila bete-betea hartzeko, baina apur bat itxaron zuen. Zirikatze motel horrek histeriarako mugan jarri zuen. Ahoa zabaldu zuen, aluaren barrualdea zabalik zuela eta gose zela islatu nahian, eta orduan, ez lehenago, gizonak hondoraino bultzatu, eta Vivianeren barrua uzkuratzen sentitu zuen.

Honela ezagutu zuen euskaldunak Bijou.

Etxera heldu zen batean, Maman samur batek agurtu zuen, Viviane lanpetuta zegoela esanez. Bere burua eskaini zion Mamanek kontsolatzeko, traizionaturiko senarra balitz bezala. Euskaldunak itxaron eginen zuela esan zion. Mamanek hura zirikatzen eta laztantzen segitu zuen.

—Begiratu dezaket? —esan zuen euskaldunak.

Logela guztiak halako moldez eginak ziren non amateurrek ezkutuko zirrikitu batetik begira baitzezaketen. Noiz edo noiz, Vivianek bisitariekin nola jokatzeko zuen ikustea maite zuen euskaldunak. Mamanek holtzaren atzera eraman zuen, gortina baten atzean ezkutatu, eta handik begiratzen utzi zion.

Lau pertsona zeuden logelan: bi gizon-emakume atzerriar, eleganzia zuhurrez jantziak, ohe handi batean zeuden bi emakumeri beha. Viviane, handia, azal ilunekoa, zabal zetzan ohean. Haren gainean, lau hankan, boli-koloreko azala zuen emakume zoragarria zegoen, begi berdeak eta ile luze, ugari eta kizkurra zituena. Bere bularrek gorantz begiratzen zuten, gerri estuak liraintasun bikaina salatzen zuen, eta beherago berriz zabaltzen zen, aldaka oparoak marrazteko. Kortse batean sortua zela zirudien. Haren gorputzak marmolaren gisako leuntasun sendoa zuen. Deus ez zen bere gorputzean biguna edo eroria, sendoa baizik, lehoi-nabar baten larrua bezain sendoa; emakume espainiarren nabarmenkeria eta garra zituen keinuetan. Bijou zen hori.

Bi emakumeek bikain ematen zuten elkarrekin, izu edo sentimentaltasun izpirik gabe. Ekintza-emakumeak ziren, irribarre ironikoa eta begitarte biziotsua adierazten zutenak.

Euskaldunak ezin zuen sumatu plantak egiten ari ziren edo benetan atsegin hartzen ari ote ziren elkarrekin, haien keinuak hain baitziren apartak! Atzerritarrek gizon bat eta emakume bat elkarrekin ikustea eskatu bide zioten Maman-i, eta erdibideko zerbait bilatu behar izan zuten. Bijouk gomazko zakila zuen loturik, sekula zimeltzen ez zena. Horrela, bada, egiten zuena egiten zuela ere, bilo-mataza eme horretatik tente agertzen zen zakila, betiereko erekzio baten ondorioz bertan iltzatuta zirudiena.

Kukubilko, Vivianeren barruan baino gehiago, Bijouk hankartean irristatzen zuen gizontasun faltsu hori, esnea irabiatzen ariko balitz bezala, eta Vivianek hankak uzkur-tzen zituen benetako gizon batek zirikatuko balu bezala. Baina tentatzea hasi besterik ez zen egin. Tematua zirudien ohekideak zakila kanpoaldean baino senti ez zezan. Ate-kis-keta gisara heltzen zion, Vivianeren sabelaren eta saihtsen aurka leun kolpekatzeko, ondoren mataza eta klitoriaren punta leun laztantzeko. Azken horrekin, Vivianek jauzi txiki bat egin zuen; Bijouk laztana errepikatu zuen, beraz, eta Vivianek jauzi egin zuen berriz. Emakume atzerritarra haien gainera makurtu zen apur bat, miopea balitz bezala, senti-kortasun horren sekretua harrapatu nahian. Viviane urduri biraka mugitu zen, eta alua eskaini zion Bijouri.

Gortinaren atzean, euskaldunak irribarre egiten zion Vivianeren antzeppen bikainari. Gizon-emakumeak txunditu-rik zeuden. Ohearen ertzean zeuden zutik, begiak zabal-zabal.

—Ikusi nahi duzue nagikeria sartzen zaigunean nola egi-ten dugun amodioa? —esan zien Bijouk—. Biratu zaitez! —agin-du zion Vivianeri.

Viviane bere eskuinaldearen gainean etzan zen. Bijou haren kontra etzan zen, eta bien oinak nahasi. Vivianek begiak itxi zituen. Orduan, bi eskuekin Bijouk sartzeko tokia egin zuen, lagunaren ipurmasailen haragi marroi iluna

zabalduz, zakila sartu ahal izateko, eta bultzaka hasi zen. Vivianek geldi segitu zuen; bultzatzen eta jotzen utzi zion. Ondoren, ezustean, ostikoa ematen duen zaldiaarena bezalako astindua eman zuen. Bijouk, azpian zuena zigortu nahian bezala, atzera egin zuen. Euskaldunak gomazko zakila distiratsua ikusi zuen orduan, benetakoaren pare, oraindik ere garaileen eran zut.

Bijouk zirikatzeari ekin zion berriz. Zakilaren muturra-ekin ukitzen zituen Vivianeren ezpainak, belarriak, lepoa, eta bularren artean ere pausatzen zuen. Vivianek bularrak elkarren aurka estutu zituen, zakilari eusteko. Lagunaren gorputzarekin bat egiteko hurbildu zitzaion, elkarren aurka igurzteko, baina Bijou iheskor bihurtu zen Viviane basa jartzen ari zen une berean. Gizonak, emakumeen gainera makurtuta, gero eta egonezin handiagoa sentitzen zuen. Haien gainean etzan nahi zuen. Baina ondoan zuen emakumeak ez zion utziko, aurpegia gorrituta bazuen ere.

Bat-batean, euskaldunak atea zabaldu zuen. Buruaz agur egin, eta hitz hauek esan zituen:

—Gizon bat nahi zenuten, bada, hemen nago.

Arropak erantzi zituen. Vivianek pozarren begiratu zion. Euskalduna konturatu zen emakumea araldi betean zegoela. Bi gizontasunek bakar zirikatzaile eta iheskor horrek baino gehiago berotuko zuten. Bi emakumeen artean bota zuen bere burua. Atzerritarrek begiratzen zuten lekura begiratzen zutela, bazen zerbait erakartzen zituena. Esku batek norbaiten ipurmasailak zabaldu zituen, eta hatz kuxkuxero bat barneratzen ari zen. Aho bat zakil jauzilari eta oldarkor baten inguruan ixten ari zen. Beste aho batek titiburu bat inguratzen zuen. Aurpegiak bularrek estaltzen zituzten, edo pubiseko ilean hondoratzen ziren. Hankak esku arakatzaille baten gainean ixten ziren. Zakil umel eta distiratsu bat azaldu, eta berriz murgiltzen zen haragian. Azal bolikara eta ijito-azala gizonaren gorputz gihartsuarekin korapilatzen ziren.

Zerbait bitxia gertatu zen gero. Bijou euskaldunaren azpian luze etzanda zegoen; Viviane, bitartean, bazter utzi

zuten istant batez. Euskalduna kukubilko zegoen emakumearen gainean, zeina gizonaren azpian zabaltzen baitzen berotegiko lore baten antzera, lurrintsu, heze, begi erotikoko eta ezpain umeldun emakumea, alimalekoa, heldua eta lizuna; artean gomazko zakilak tente segitzen zuen haien artean, eta sentimendu arraro batek hartu zuen euskalduna. Zakil hark berea ukitzen zuen, eta emakumearen irekigunea babesten zuen, lantza batek nola.

—Kendu hori! —agindu zion haserre antzera.

Bizkarraren atzera eraman zituen emakumeak eskuak; gerrikoa askatu, eta gomazko zakila erantzi zuen. Segidan, gizona haren gainean etzan zen, eta Bijouk, oraindik ere zakila eskuan, ordurako barruan zuen euskaldunaren ipurmasailen gainera eraman zuen. Berriz hura astintzeko gizonak gorputza altxatu zuenean, Bijouk haren ipurmasailen artean barneratu zuen gomazko zakila. Piztia baten gisara egin zuen jauzi euskaldunak, eta amorru handiagoz oldartu zitzaion. Gorputza apur bat altxatzen zuen bakoitzean, atzetik erasotzen ziotela nabaritzen zuen. Emakumearen titiak sentitzen zituen azpian zapalduta, haren paparraren azpian kulunkatzen zirela, azal bolikaradun sabela sentitzen zuen gora eta behera azpian, aldakak aldaken aurka, bagina hezea sentitzen zuen hura irensten; eta, emakumeak zakila barneratzen zion aldiro, euskaldunak ez zuen bere asaldura bakarrik sentitzen, emakumearena ere sentitzen zuen. Zirrara bikoitz horrek erotuko zuela iruditu zitzaion. Viviane han zetzan, haiei begira, arnasestuka. Haren gainera bermatu ziren gizon-emakume atzerritarrak, oraindik ere arropak soinean, eta zoro antzera aritu ziren Vivianeren aurka gorputzak igurzten, zirrikitu bat bilatzeko ere sentsazio basetan nahasiegi.

Euskalduna aurrera eta atzera irristatzen zen. Oheak kulunka egiten zuen gorputzak astintzen zirenean; elkarri heltzen zioten, tolesten ziren, gorputzeko bihurtune guztiak betez, Bijouren gorputz lizuneko makinari ezitia zerion bitartean. Uhinek lasterka egiten zuten ileetako erroetatik behatz puntetara. Behatzek elkar bilatzen zuten, eta bata besteare-

kin korapilatzen ziren. Mihiak pistiloen gisan zeuden gora begira. Bijouren oihuek kiribil amaigabeen antzera hazten ziren, ah, ah, ah, ah, handitzen, zabaltzen, basago bihurtzen. Euskaldunak astindu sakonago batekin erantzuten zien horiei. Ez zieten jaramonik egiten ondoan zituzten gorputz korapilatuei; erabat suntsitu arte hartu behar zuen orain emakumea –Bijou, puta hori, gizonaren gainean zituen hamaika garroekin, lehenik euskaldunaren azpian zetzana, ondoren gainean, haren barruan edonon zegoela zirudiena, hatzak nonahi eta bularrak gizonaren ahoan zituena–.

Bijouk negar egin zuen, bera erailtzen ariko balira bezala. Buruz gora etzan zen. Euskalduna zutik jarri zen, mozkor, sutan. Lantza zut zuen oraindik, gorri eta hanpatuta. Emakume atzerritarraren arropa desordenatuek erakarri zuten. Ezin zuen haren aurpegia ikusi, gona altxatuak ezkutatzen baitzuen. Gizona Vivianeren gainean zetzan, hura astintzen. Bien gainean zegoen emakumea, hankak airean ostikoka. Euskaldunak hanketatik heldu, eta beherantz bultzatu zion, hura hartzeko asmoz. Baina garrasika hasi eta berehalakoan zutitu zen.

—Begiratu besterik ez nuen nahi –esan zuen, eta ongi jarri zituen arropak.

Gizona Vivianerengandik apartatu zen. Oraindik ere ilea harrotuta zutela, agur egin zuten zeremoniatsu, presaka alde egin aurretik.

Bijou eserita zegoen, barrez, begi zabalak luze eta mehe.

—Ikuskizun ederra eman diegu –esan zuen euskaldunak–. Zu, jantz zaitez, eta jarraitu niri. Etxera eramane zaitut. Marraztu nahi zaitut. Nahi duena ordainduko diot Mamani.

Eta etxera eraman zuen, berarekin bizitzeko.

Bijouk pentsatzen bazuen euskaldunak etxera eraman zuela hura beretzat bakarrik izateko, berehala hartuko zuen desengainua. Euskaldunak modelotzat zerabilen kasik etengabeen,

baina gau partean, beti joaten zitzaizkion etxera lagun artistak afaritarako, eta Bijouk sukaldari lanak egin behar izaten zituen. Afalostean, estudioko ohean etzanarazten zuen, lagunekin mintzatzen zen bitartean. Aski zuen Bijou ondoan izan eta hari laztanak egitearekin. Lagunek ezin izaten zioten begiratzeari utzi. Euskaldunaren eskuak bular helduen inguruan laztan egiten zion, mekanikoki. Bijou ez zen mugitzen, jarrera adoregabea etzaten zen. Euskaldunak azala balitz bezala ukitzen zuen soinekoaren oihala. Emakumearen soinekoek gorputza estu egiten zioten beti. Eskuek gorputza neurtzen, haztatzen eta laztantzen zuten, sabelean zirkuluak marrazten zituzten gero, eta ondoren, ezustean, Bijou iraularazten zuten kilimak egiten zizkioten. Euskaldunak soinekoa askatzen zion; titi bat atera, eta lagunei zera esaten zien:

—Ikusi al duzue inoiz halako titirik? Begira! —eta lagunek begiratzen zioten.

Haietako bat erretzen ari zen, beste bat Bijouren zirriborro bat egiten, beste bat hitz eta pitz; baina begiratu, guztiek begiratzen zuten. Soineko beltzaren gainean, bularrak —forman perfektua— marmol boli zaharkituaren kolorea zuen. Euskaldunak atximurka egiten zion titiburuari, eta gorritu egiten zen.

Ondoren, berriz lotzen zion soinekoa. Hanken luzera laztantzen zion, galtzarien tontorrarekin topo egiten zuen arte.

—Ez duzu estuegi? Ikus dezagun. Marka egin dizu? —gona igotzen zion orduan, eta galtzaria arreta handiz kentzen.

Bijouk hanka euskaldunarengana altxatzen zuenean, gizonek galtzerdien gaineko izterren silueta distiratsu eta leuna ikus zezaketen. Ondoren, berriz tapatzen zuen gorputza, eta euskaldunak hura ferekatzen segitzen zuen. Bijouren begiak lausotu egiten ziren, eta mozkor itxura hartzen zuen. Alta, euskaldunaren emaztearena egiten zuenez eta haren lagunen aurrean zegoenez, euskaldunak hura erakusten zuen aldiro gogoz saiatzen zen bere burua tapatzen, soinekoaren toles beltzetan sekretu berri oro ezkutatu nahian.



Hankak luzatu zituen. Zapatak kendu zituen. Begiek sortzen zuten argi erotikoak, betile astunek nahikoa itzalezatatu ezin zezaketen argiak, suak bezala zeharkatzen zituen gizonen gorputzak.

Halako gauetan, bazekien euskaldunak ez zuela plazera emateko inolako asmorik, baizik eta bera tormentatzea zuela helburu bakarra. Ez zen kontent geratuko lagunen aurpegiak aztoratu eta beren senetik ateratzen ziren arte. Soinekoak alde batean zuen kremailetatik tira egin eta eskua barrura irristatzen zuen.

—Gaur ez daramazu kulerorik, Bijou.

Gizonek euskaldunaren eskua nabari zezaketen soinekoaren azpian, sabelaldea laztantzen zuela eta hanketarantz behera egiten zuela. Orduan, gelditu, eta eskua atzera eramaten zuen berriz. Soineko beltzetik eskua ateratzen eta kremaileira ixten ikusten zuten.

Euskaldunak marrazkilari bati bere pipa beroa eskatu zion behin. Gizonak eman egin zion. Bijouren gonapetik gora eraman zuen pipa eta aluaren kontra paratu zuen.

—Bero dago –esan zuen euskaldunak–. Bero eta leun.

Bijou pipatik aldendu zuen gorputza, ez baitzuen nahi gizonek jakiterik euskaldunaren ferekek hezetu egin zutela. Baina gonapetik ateratzean, pipak berak islatzen zuen hori, mertxika zukuan busti zutela baitzirudien. Euskaldunak jabeari itzuli zion, zeinak, horrekin, Bijouren alu-usain apur bat jaso baitzuen. Bijou beldur zen euskaldunak hurrengoan zer asmatuko ote zuen. Hankak estutu zituen. Euskalduna erretzen ari zen. Hiru lagunak ohearen inguruan eseri ziren, eta axolagabe solas egiten hasi, gainontzeko keinuek elkarizketarekin zerikusirik ez balute bezala.

Haietako bat marrazkilari bati buruz ari zen, galeriak ortzadarraren koloreko lore erraldoiekin betetzen zituen emakumeaz.

—Ez dituk loreak –esan zuen pipa-erretzaileak–, bulbak dituk. Bistakoa duk. Obsesio hori dik; emakume helduen tamainako bulbak marrazten ditik. Hasieran, petaloak ziruz

ditek, loreen bihotza, baina gero ezpain desberdinak ikusten ahal dituk, erdiko lerro fina eta zabalik daudenean ezpainek duten ertz izurtua. Nolako emakumea izanen da bulba erraldoia behin eta berriz erakusten dabilen hori, tunel gisako errepikapen batean iradokitzaile desagertzen den bulba, zabal batetik txikiago batera doana, haren itzal guztiakin, ikuslea bertan sartzen ahalko balitz bezala? Harrapatzen ahal duten jaki oro xurgatzeko baino zabaltzen ez diren itsas landare horietako baten parean sentiarazten hau, landare horiek ere ertz izurtu bera baitute zabaltzean.

Hori entzutean, euskaldunak burutazio bat izan zuen. Bizarra mozteko zurdakia eta labana ekartzeko eskatu zion Bijouri. Emakumeak hala egin zuen; atseginez hartu zuen mugitzeko eta gizonaren eskuek haren inguruan ehundu zuten sexu-lozorroa gainetik kentzeko aukera. Euskaldunak beste nonbait zuen orain burua. Bijouk emandako zurdakia eta xaboia hartu, eta aparra nahasten hasi zen. Xafla berri bat jarri zion labanari.

—Etzan ohean —esan zion orduan Bijouri.

—Zer eginen didazu? —galdetu zion—. Nik ez dut bixarrik hanketan.

—Badakit hori; erakutsi hankak!

Bijouk hankak luzatu zituen. Hain leunak ziren non distira atera zietela zirudien. Egur preziatu eta zurbil baten gisara zerien dirdira, ez zuten bilo bakar bat ere, ez zainik, ez lazgunerik, ez orbainik, ez akatsik. Hiru gizonak hanken gainera makurtu ziren. Hankak astintzen hasi zenean, euskaldunak bere praken aurka estutu zituen. Gona altxatu zion, emakumeak atzera estaltzeko indarra egiten zuen bitartean.

—Zer eginen didazu? —galdetu zion berriz.

Gona igo, eta agerian utzi zuen bilo kizkur mataza, hain ugaria non hiru gizonak txistu egin baitzuten. Hankak estu itxita zituen oraindik ere, eta oinak euskaldunaren praken aurka jarriak, non gizonak bat-batean zomorro-zirrara bat sentitu baitzuen, aluan hemendik hara mugitzen ari ziren milaka inurri balitu bezala.

Gizonei emakumeari heltzeko eskatu zien azkenean. Bijouk gorputza bihurritu zuen hasieran, baina berehala ohartu zen geldi egoten bazen ez zela hain arriskutsua izanzen, aluko ilea arretaz kentzen ari baitzitzaion, ertzetatik hasita, sabelalde belusatuan eskas eta distiratsu zuen tokian. Sabelak bihurgune bigun batean behera egiten zuen hor. Euskaldunak aparra zabaldu, eta labana pasatzen zuen gozotasunez, eta gero biloak eta xaboia kentzen zituen xukadera batekin. Hankak estu itxita zituenez, gizonek ezin zuten deus ikusi, biloa salbu, baina euskaldunak aurrera egin ahala eta hirukiaren muinera heldu zenean, menditxo bat utzi zuen bistan, tontor leun bat. Xafla hotza hor sentitzeak Bijou aztoratu zuen. Erdi haserre erdi bero zegoen, alua ez erakusten saiatzen zen arren; hala ere, leuntasuna lerro makotu fin batera nola beheratzen zen agertu zuen biluzte hark. Irekigunearen pipila agertzen zuen, klitoria ezkututzen zuen haragi toles leuna, intentsitate handiagoz koloreztatutako ezpainen ertza. Bijouk urrundu nahi zuen, baina beldur zen xaflak ez ote zuen zaurituko. Heltzen zioten hiru gizonak apur bat makurtu ziren hobeki ikusteko. Euskaldunak horrekin aski izanzen zuela pentsatu zuten, baina hankak zabaltzeko agindu zion emakumeari. Oinak astindu zituen haren aurka, eta horrek gehiago berotu zuen euskalduna.

—Zabaldu hankak —esan zion berriz—. Hor behean ilea duzu oraindik ere.

Bortxaz zabaldu zizkieten, eta euskalduna gozoki ekin zion berriz labanaz bulbaren bi aldeetako bilo berriro eskas eta finki kizkurra mozteari.

Orain guztia zegoen agerian: aho bertikal luzea eta bigarren ahoa, aurpegiko ahoa bezala zabaltzen ez zena, zeren eta, zabaltzeko, emakumeak kanporantz bultza egin behar baitzuen apur bat. Baina Bijouk ez zuen bultza eginen, eta, beraz, bidea oztopatzen zuten bi ezpain itxiak besterik ezin zituzten ikusi.

—Hara, emakume horren margolanak bezalakoa duk orain, ezta? —esan zuen euskaldunak.

Baina, margolanetan, bulba zabalik zegoen, ezpainak bereizirik, ahoko ezpainen barnealdearen antzera, barruko geruza argiagoa erakusten. Bijouk ez zuen hori erakutsiko. Bilorik gabe, atzera itxi zituen hankak.

—Zabalaraziko dizkizut —esan zion euskaldunak.

Zurdakiari xaboia kendu zion. Bulbako ezpainetatik pasatu zuen, gora eta behera, eztiki. Hasieran, Bijouk are gehiago uzkurtu zuen gorputza. Gizonek gehiago hurbildu zituzten buruak. Euskaldunak, emakumearen oinek ereketioa estutzen zutela, bulbaren eta klitoriaren puntaren gaitetik pasatu zuen kontu handiz zurdakia. Orduan, gizonek ikusi zuten Bijouk dagoeneko ezin zituela ipurmasailak eta alua uzkurtu, zurdakia mugitzen zen heinean, ipurmasailak pittin bat aldentzen eta bulbako ezpainak apur bat bereizten zirela, hasieran ikusezin izan arren. Biluztasunak haren keinuen ñabardura oro uzten zituen agerian. Ordurako, ezpainak bereziak zituen, eta bigarren aura bat erakusten zuten, itzal zurbilago bat, ondoren hirugarren bat, eta azkenerako Bijou bultza eta bultza ari zen, zabaldu nahian bezala. Sabela aldi berean mugitzen zen, puzten eta husten. Euskalduna sendoago bermatu zen bihurritzen ari ziren hanken aurka.

—Geldi! —erregutzen zuen Bijouk—. Geldi!

Gizonak aluari zerion hezetasunaz ohartu ziren. Euskalduna gelditu egin zen, beraz, ez baitzion plazera orduan eman nahi, hori goroko eta beretzat gorde nahi baitzuen.

Bijou desiratzen zegoen putetxeko bizitza eta artista baten konpainia eta modelo gisako bizitza bereizteko. Euskaldunak bi bizitza horien artean alde txiki bat baino ez zuen ikusten, benetako posesioari zegokiona. Baina maite zuen hura erakustea eta bisitariei atsegin ematea emakumearen irudiarekin. Nola bainatzen zen ikus zezaten nahi zuen. Gustukoa zuten bularrak nola ur azaleratzen ziren ikustea, sabalak puztean nola mugiarazten ahal zuen ura, nola altxatzen zuen gorputza hankartearen xaboia emateko. Gustukoa zuten

haren azal bustia lehortzea. Baina baten bat Bijou pribatuan ikusten ahalegintzen bazen, euskalduna deabrutu eta edonor kikiltzeko moduko gizon bihurtzen zen.

Jolas horien ordainetan, nahi zuen lekura joateko eskubidea zuela uste zuen Bijouk. Euskaldunak etengabeko kitzikapen-egoera bizian zuen, eta beti ez zuen emakumea asetzeko lana hartzen. Horrela hasi zen desleial izaten, baina hainbeste zuhurtziaz jokatzeko zuen, non ezinezkoa baitzen euskaldunak harrapatzea. Bijouk Grande Chaumière delakoan biltzen zituen amoranteak, marrazketa eskolarako posatzen zuen tokian. Neguko egunetan, ez zuen arropa ziztu bizian eta ezkutuan erantzten, beste modeloek egiten zuten gisan, berogailuaren ondoan, guztien bistan egoteko paratzen baitziren oholtzatik hurbil. Bijouk talentu berezia zuen horretarako.

Lehenik eta behin, ile basa askatzen zuen, zurda balitz bezala. Berokiaren botoiak askatzen zituen gero. Eskuak motelak eta ferekatzaileak ziren. Ez zuen bere burua objektiboki maneiatzen, baizik eta bere gorputzaren izaera zehatza neurtu nahi duen emakume baten antzera, eta esku-zarta leunak ematen zituen, bere perfekzioei esker ona adierazteko. Soineko beltz betierekoa bigarren azal baten gisan atxikitzen zitzaion gorputzari, eta irekigune misteriozuz josita zegoen. Keinu bakar batekin askatzen zuen sorbalde-tatik, eta bularren gainean erortzen zitzaion, ez beherago. Orduan, ispiluan bere buruari begiratu nahi ziola erabakitzen zuen, betileak aztertzeko. Segidan, saihetsak, bularren hasiera eta sabelaren bihurtzearen hasiera agerian uzten zituen kremlera zabaltzen zuen. Ikasle guztiek astoen atzetik begiratzen zioten. Emakumeek ere Bijouren gorputzeko atalik haragikoenetan pausatzen zituzten begiak, modu liluragarrian soinekotik gainezka egiten zuten ataletan. Azal akatsgabea, silueta leuna, haragi sendoa, ikusle guztien gozagarri. Bijouk gorputza astintzeko eta giharrak laxatzeko modu berezia zuen, jauzi egin aurretik katu batek egiten duen gisan. Astintze horrek, gorputz osoan zabaltzen zenak, bortxaz helduko baliete bezala mugiarazten zituen bularrak.

Ondoren, beheko tolesetik hartzen zuen leunki soinekoa, eta sorbalden gainetik kentzen zuen, poliki. Sorbaldetara heltzen zenean, ordea, istant batez geratzen zen. Zerbait trabatzen zitzaion ile luzean. Inork ez zion laguntzen; zur eta lur zeuden guztiak. Gorputz agertu berriak, bilo gabeak, guztiz biluziak, orekari eusteko hankak zertxobait bereziak, ikusleak durduzutzen zituen, bihurtzako sentsualitatearen, haren oparotasun eta feminitatearen ondorioz. Galtzari beltz zabalak hanken goialdean zituen. Galtzerdi beltzak zeramatzan, eta, egun euritsua bazen, larruzko bota luzeak, gizon botak. Botekin borrokatzen zen artean, hurbiltzen zitzaion edonoren esku zegoen. Horrek biziki tentatzen zituen ikasleak. Baten bati laguntzeko itxurak egiten bazituen, harengana hurbildu ahala, Bijouk ostikoa joko zion, ezkutuko asmoez jakitun. Trabatutako soinekoarekin borrokan segitzen zuen, gorputza astinduz amodio-espasmo batean bezala. Azkenean, askatzea lortzen zuen, ikasleen begiek gozatua hartu eta gero. Bular oparoak eta ile nahasia aske uzten zituen. Batzuetan, botak ez kentzeko eskatzen zioten; bota astun horietatik ernaltzen baitzen, lore baten gisan, emakume gorputz bolikara. Desirazko giro batek hartzen zuen ondoren ikasgela osoa.

Oholtzaren gainean modelo bihurtzen zen, eta ikasleek artistak zirela gogoratzen zuten. Bijouk gustuko norbait ikusten bazuen, begiak harengan pausatzen zituen. Hori zen elkartzeak hitzartzeko zuen aukera bakarra, euskalduna bila joanen baitzitzaion arratsaren erdialdean. Ikasleak bazekien zer esan nahi zuen begirada hark: inguruko kafetegi batean elkarrekin zerbait hartzea onartuko zuen. Hasiberriak bazekien, halaber, kafetegi horrek bi solairu izanzen zituela. Goiko solairuan kartetan aritzen ziren gau partean, baina bazkalondoan huts-hutsik egoten zen. Amoranteek baino ez zekiten hori. Ikaslea eta Bijou hara joaten ziren; *lavabos* hitzekin seinaleztatutako eskailera-mailak igo, eta gela erdi ilun batean sartzen ziren, ispiluak, mahaiak eta aulkiak zituen gela batean.

Bijouk edatekoa eskatu zion zerbitzariari; larruzko eserleku batean jarri, eta atsedean hartu zuen. Aukeratu zuen ikaslea dardarka zegoen. Bijouren gorputzari aurretik sekula sentitu gabeko berotasuna zerion. Haren ahoan erori zen gaztea, eta bere azal fresko eta hortz ederrek mutilaren musuei erabat eman, eta mihiarekin erantzutera bultzatzen zuten Bijou. Banku mehe eta luzean hasi ziren iraulka, eta gaztea emakumearen gorputza ahal bezainbeste sentitzen saiatzen zen, edozein unetan «Geldi, eskaileretatik norbait ager daiteke» esanen zion beldur baitzen.

Ispiluek haien zirriak islatzen zituzten, soinekoaren eta ilearen nahasmena. Ikaslearen eskuak arinak eta lotsaga-beak ziren; mahaiaren azpira joan, eta gona altxatu zion. Orduan, Bijouk esan zion:

—Geldi, norbait etor daiteke eskaileretatik.

—Ez egin kasurik —erantzun zion—, ez naute ikusiko.

Hala zen, ezin zuten mahai azpian ikusi. Aurrerantz makurtu zen Bijou, masailak esku-ahurretan bermaturik, ameslari itxuraz, eta ikasle gazteari belaunikatzen eta gonapean burua hondoratzen utzi zion.

Gorputza ahultzen utzi, eta mutilari musuka eta laztanka hasi zen. Euskaldunak bizarra mozteko zurdakia jarritako lekuan nabari zuen orain gizon gaztearen mihia. Aurrerantz egin zuen gehiago, plazerak gainezka egiten zion bitartean. Orduan, urratsak entzun zituzten, eta ikaslea ziztu bizian altxatu, eta ondoan eseri zitzaion. Bere nahasmena ezkutatzeke, Bijou musukatu zuen. Zerbitzariak besarkatuta harrapatu zituen eta mandatua bete bezain laster alde egin zuen, presaka. Ikasle gaztearen arropen azpira egin zuten emakumearen eskuak, hura arakatzeko asmoz. Mutilak hainbesteko amorruz musukatzen zuen, non Bijou bankuan eta gaztea gainean etzan baitziren.

—Zatoz nire etxera —xuxurlatu zion mutilak—, mesedez, zatoz nirera. Ez dago urrun.

—Ezin dut —erantzun zion Bijouk—, euskalduna berehala etorriko zait bila.

Orduan, batac bestearen eskuari heldu, eta plazer handiena sorraraz zezakeen lekura eraman zuten. Han eserita, edarien aurrean, solas egiten ariko balira bezala, laztanak egin zizkioten elkarri. Ispiluek intzirika hastear ziruditen aurpegiak salatzen zituzten, uzkurtutako hazpegiak, dardarka zeuden ezpainak, kliska eta kliska ari ziren begiak. Haien aurpegiei erreparatuta, eskuen mugimendua asma zitekeen. Noiz edo noiz, ikasle gazteak zaurituta eta arnastu ezinik zirudien. Beste bikote bat agertu zen eskaileretatik, eskuak oraindik ere lanean zeudela, eta elkar musukatu behar izan zuten berriz, amorante erromantikoen gisan.

Ikasle gaztea, larritasuna ezkutatu ezinik, norabait joan zen bere burua baretzera. Bijou ikasgelara itzuli zen, gorputza sutan zuela. Ixteko orduan euskalduna bila joan zitzaionerako, lasai zen berriz.

Bijouk iragarle bati buruzkoak entzunak zituen, eta kontsulta egitera joan zitzaion. Afrika mendebaldeko koloreko gizon handi bat zen, eta auzoko emakume guztiak haren-gana joaten ziren. Itxarongela gainezka zegoen. Parez pare, urrez brodatutako zetazko gortina txinatar beltz erraldoi bat zegoen zintzilik. Gizona haren artetik agertu zen. Zeraman jantzi arruntagatik izan ez balitz, aztia zirudikeen. Begirada pausatu sakona eskaini zion Bijouri begi distiratsuekin, eta, ondoren, gortinaren atzera desagertu zen berriz, Bijou baino lehenago heldu ziren emakumeetako azkenarekin. Saiok ordu erdia irauin zuen. Orduan, gizonak gortina beltza zabaldu, eta adeitsu lagundu zion emakumeari ate nagusira.

Bijouren txanda zen. Gortinaren azpitik pasatzen utzi zionean, Bijou gela kasik ilun batean barneratu zen, gela txiki batera, gortina txinatarrez josia eta azpian argi bat zuen kristalezko bola batek baino argitzen ez zuena. Horrek iragarlearen aurpegian eta eskuetan egiten zuen dir-dir, eta gainontzeko guztia ilunpean utzi. Gizonaren begiak hipnotikoak ziren.



Bijouk erabaki zuen ez zuela nahi hipnotiza zezan, gertatzen zen guztiaz erabat kontziente egon nahi zuela. Sofan etzateko eta tarte batean isil-isilik egoteko eskatu zion, gizonak, ondoan eserita, harengan arreta osoa jartzen zuen bitartean. Begiak itxi zituen, eta Bijouk gauza bera egitea erabaki zuen. Minutu oso batez egon ziren horrela, eta, gero, eskua kopetan jarri zion. Esku bero, lehor, astun eta elektrizatzailea zen.

—Sufriarazten zaituen gizon batekin zaude ezkondata —esan zuen orduan haren ahotsak, amets batean bezala.

—Bai —erantzun zion Bijouk, lagunaren aurrean ikusgai jartzen zuen euskalduna gogoan.

—Ohitura xebreak ditu.

—Bai —erantzun zuen txunditurik.

Begiak itxita, Bijouk eszenak argi eta garbi irudikatzen ahal zituen. Bazirudien iragarleak ere ikus zitzakeela.

—Zorigaiztokoa zara —gehitu zuen—, eta oso desleiala izanez orekatzen duzu sentimendu hori.

—Bai —errepikatu zuen Bijouk.

Orduan, emakumeak begiak zabaldu zituen, eta beltza ikusi zuen adi-adi begira; berriz itxi zituen begiak. Gizonak eskua sorbaldan pausatu zion.

—Egin lo —esan zion.

Haren hitzek baretu egin zuten, zeinei erruki izpi baten zantzua hartu baitzien. Baina ezin zen lokartu, gorputza urduri zuen. Bazekien lokartzean arnasketa nola aldatzen zen, baita bularren mugimendua ere. Beraz, lokartuaren plantak egin zituen. Denbora osoan sentitu zuen eskua sorbaldan, eta haren berotasunak arropak zeharkatu zituen. Sorbalda laztantzeari ekin zion orduan. Hainbesteko patxadaz ari zen, non beldur baitzen ez ote zuen benetan loak hartuko, baina ez zuen nahi esku haren ukitu biribilak bizkarrezurrean behera egitean sortzen zuen sentsazio atsegina eten. Guztiz erlaxatu zen.

Gizonak eztarria ukitu zion, eta zain geratu zen. Segur egon nahi zuen lo zegoela. Bularrak ukitu zizkion; Bijouk ez zuen zirkinik ere egin.

Zuhurtziaz eta abileziaz sabela laztandu zion, eta zetazko soineko beltza zapaldu zuen hatzarekin gero, hanken forma eta hankarteko hutsunea marrazteko. Ibar hura argi agertu zitzaionean, hankak laztantzeari ekin zion berriro. Oraindik ere ez zizkion soinekoaren azpitik ukitu. Ondoren, zaratarik egin gabe aulkitik altxatu, sofaren oinetara joan eta belauniko jarri zen. Horrela, Bijouk argi zuen; soinekopean begiratu, eta azpitik deus ez zeramala ikus zezakeen. Tarte luze batez egon zen begira.

Gonaren tolesa apur bat igotzen sentitu zuen ondoren, hobeki ikusi ahal izateko. Bijou hankak zertxobait zabalik zetzan. Gizonaren ukituaren eta begiradaren azpian urtzen ari zen. Zer zoragarria zen norbait begira izatea ustez lo zauden bitartean, gizona erabat aske sentitzea! Zeta igotzen sentitu zuen, hankak agerian geratzen. Iragarleak adi-adi begiratzen zien.

Esku batekin ezti eta poliki laztantzen zituen, zen eta atsegin handiena hartuz, soinekoaren azpian silueta leuna eta gorantz egiten zuen zetazko pasabide luzea sentitzeko. Bijouk nekez egon zitekeen erabat geldi. Hankak apur bat gehiago zabaldu nahi zituen. Zer poliki bidaiatzen zuten eskuek! Hankaren lerroak nola segitzen zituen sentitzen ahal zuen, bihurguneetan luzatuz, nola egin zuen pausaldi bat belaunean aurrera jarraitu aurretik. Belaunean pausaldia egin, eta aurrera segitu zuen gero. Alua ukitu aurretik geratu zen. Aurpegiari begira egonen zen, Bijou sakonki hipnotizatua zegoela segurtatzeko. Bi hatzekin alua ukitzeari ekin zion, oratzeari.

Isilean isuritako ezti sentitu zuenean, gonaren azpira eraman zuen burua; hankartean ezkutatu, eta musukatzen hasi zitzaion. Mihi luzea eta bizia zuen, sarkorra. Bere buruari eutsi behar izan zion Bijouk, aho jatun horretara ez hurbiltzeko.

Lanpara txikiak ematen zuen argia zinez ahula zenez, begiak erdizka zabaltzen ausartu zen. Burua hankartetik aterata zuen, eta poliki biluzten ari zen. Harengandik hurbil

zegoen zutik, eder, garai, errege afrikar baten gisan, begiak dir-dir, hortzak agerian eta ahoa umel.

Ez mugitu, ez mugitu, horrela gizonak nahi duen guztia eginen du. Zer eginen luke gizon batek emakume hipnotizatu batekin, zeinari inolaz ere ez baitio zertan beldur izan edo plazer eman?

Biluzik, Bijouren gainera makurtu, eta, besoekin inguratuz, buruz behera jarri zuen. Bijouk ipurmasail zoragarri haiek eskaintzen zizkiola zirudien orain. Soinekoa altxatu zion, eta bi tontorrak zabaldu zituen. Etenaldi bat egin zuen, begiak elikatzeke. Hatzak sendo eta bero sentitzen zituen Bijouk, haragia bereizi zuenean. Makurtu, eta arrakala musukatzeari ekin zion. Eskuek gorputza inguratu zioten, eta harengana altxatu zuen, zakila atzetik sartu ahal izateko. Hasieran, ipurtzuloa baino ez zuen aurkitu, zeharkatzeko txikiegia eta estuegia, eta irekigune zabalagoa sentitu zuen gero. Barrura eta kanpora kulunkatu zen une batez, eta gero geratu egin zen.

Buruz gora jarri zuen atzera, gizonak Bijou aurrealdetik ikusi ahal izateko. Eskuek bularrak bilatu zituzten soinekoaren azpian, eta laztan bortitzekin zapaltzen zituzten. Zakil handia zuen, Bijourena erabat betetzeko modukoa. Hainbeste biolentziaz sartu zion non Bijouri iruditu baitzitzaion orgasmo bat izan eta bere burua salatuko zuela. Gizona ohartarazi gabe askatu nahi zuen plazera. Sexu-oldarren erritmo hark izugarri kitzikatu zuen, eta, hura ferekatzeko zakila atera zuen batean, orgasmoa heltzen sentitu zuen.

Bijouren desira osoa hura berriz sentitzera emana zegoen. Emakumearen aho erdi irekian zakila barneratzen saiatzen ari zen orain iragarlea. Bijouk ez zuen erantzun nahi izan, eta ahoa apur bat zabaldu besterik ez zuen egin. Gizona ez ukitzeko eskuei eustea eta erabat geldu egotea aha-lerin handiegia zen. Baina berriz sentitu nahi zuen orgasmo lapurtu baten plazer bitxi hura, gizonak laztan lapurtu haien plazera sentitzen zuen gisan.

Emakumearen pasibotasunak zuzenean eroaldira zerman. Haren gorputzeko zoko guztiak ukitu zituen, gorputza

ahal zuen molde guztietan zeharkatu zion. Sabelaren gainean eseri zen orduan, zakila bularren artera bultzatzeko; zakilaren inguruan estutu zituen, eta mugitzeari ekin zion. Gizonaren biloak senti zitzakeen Bijouk bere aurka igurzten.

Kontrola galdu zuen. Ahoa eta begiak zabaldu zituen aldi berean. Gizonak gozamenak jota mar-mar egin zuen; ahoa ahoaren aurka estutu, eta gorputza emakumearenaren aurka igurtzi zuen. Bijouren mihia gizonaren ahoaren aurka astintzen zen, iragarleak haren ezpainei hozka egiten zien bitartean.

—Eginen duzu zerbait nigatik? —esan zion gizonak, kolpe batez geratu zenean.

Bijouk baietz egin zion buruaz.

—Lurrean etzanan naiz, eta zu kukubilko jarriko zara gainean, nik soinekoaren azpitik begiratzeko.

Luze etzan zen lurrean. Aurpegiaren gainean jarri zen Bijou kukubilko, soinekoa goratzen zuela, gizonaren buruaren inguruan erori eta erabat estaltzeko. Bi eskuekin fruitu bati bezala heldu zien ipurmasailei, eta behin eta berriz pasatu zuen mihia tontorren artetik. Klitoria ukitzen ari zen orain, eta horrek Bijou aurrera eta atzera mugiarazi zuen. Gizonaren mihiak erantzun, eta uzkurtze oro sentitzen zuen. Kukubilko jarri zenean, gizonaren plazerezko oihu mutu bakoitzarekin zakil tenteak dardara egiten zuela konturatu zen Bijou.

Atea jo zuten. Bijou kolpetik altxatu zen, ikaraturik, musuengatik ezpainak oraindik ere umel zituela, eta ilea harro. Iragarleak lasai antzean erantzun zuen halere:

—Oraindik ez nago prest —jiratu, eta irribarre egin zion Bijouri.

Bijouk irribarrea itzuli zion. Gizona azkar jantzi zen; berehala guztiak bere tokian zirudien. Berriz elkartuko zirela esan zioten elkarri. Bijouk bere lagun Leila eta Elena eramana nahi zituen. Ados egonen zen? Hala egiteko erregutu zion gizonak.

—Hona datozen emakume gehienek ez naute tentatzen —esan zion—. Ez dira ederrak. Baina zu, zu nahi duzunean etor zaitezke. Zuretzat dantza eginen dut.

Hiru emakumeentzako arrats batean egin zuen dantza, bezero guztiek alde egin zutenean. Bere burua biluztu zuen, gorputz urre-marroi distiratsua bistan uzteraino. Bere zakilaren neurria eta kolorea zuen zakil faltsu bat lotu zuen gerrian.

—Neure herriko dantza bat da hau —esan zuen—. Jaiegunetan dantzatzen dugu emakumeentzat.

Argi ahuleko gela hartan, non argia su txiki baten antzera islatzen baitzen dantzariaren azalean, sabela mugitzeari ekin zion, eta zakila den modurik iradokitzaileenean mugitu zen. Emakume bat hartzen ariko balitz bezala astintzen zuen gorputza, eta orgasmo baten tonalitate anitzetan harra-paturiko gizonaren espasmoak antzestu zituen. Bat, bi, hiru. Azkeneko espasmoa basa izan zen, gizonak sexu-ekintzan bizia ematen ari zela baitzirudien.

Hiru emakumeak begira zeuden. Hasieran, zakil faltsua gailentzen zen, baina, ondoren, dantzaren berotasunean, luzeran eta pisuan norgehiagokan hasi zen benetakoa. Biak mugitzen ziren orain gizonaren keinuekin bat. Begiak itxi zituen, emakumeen beharrik ez balu bezala. Horrek efektu ahaltsua izan zuen Bijourenan. Soinekoa kendu zuen, eta gizonaren inguruan dantzatzeari ekin, kitzikagarri. Baina beltzak noiz edo noiz baizik ez zuen Bijou zakilaren puntarekin ukitzen, bidean topatzen zuenetan, eta gorputza espazioan bihurritzen eta astintzen segitu zuen, gorputz ikusezin baten aurka dantzatzen den basapiztiak nola.

Zirikatze horrek Elenarengan ere eragina izan zuen, eta soinekoa irristatzen utzi eta bi dantzariengandik hurbil belaunikatu zen, dantza sexualaren orbitan egoteko bezain hurbil. Bat-batean, zabuka ari zen zakil handi, indartsu eta sendo horrek odoletan jartzeraino har zezan desiratu zuen, mugimendu tentagarriko *danse du ventre* maskulino hori egiten zuen bitartean.

Leila, gizonak erakartzen ez bazuten ere, Bijou besarkatzen ahalegindu zen, bi emakumeen aldarteak kutsaturik; Bijouk, ordea, ez zuen hartuko, bi zakilekin liluraturik baitzegoen.

Leila Elena musukatzen ere saiatu zen. Bi emakumeen aurka igurtzi zituen gero titiburuak, haiek limurtu nahian. Bijouren aurka estutu zuen gorputza, kitzikatua zegoela aprobetxatuz etekin atera nahian, baina Bijouren arreta bere aurrean kulunkatzen ziren organo maskulinoetan zetzan, oso-osorik. Ahoa zabalik zuen, eta berak, baita ere, bi zakilako munstro batek har zezala amesten zuen, aldi berean bi erantzun-guneak asetzen ahal zituen hark.

Afrikarra lurrera erori zenean, dantzagatik akiturik, Elenak eta Bijouk haren gainera jauzi egin zuten batera. Bijouk azkar asko barneratu zuen zakiletako bat aluan eta bestea ipurtzuloan, eta basa eta geldialdirik gabe bihurritu zen gizonaren sabelaldearen gainean, ase erori zen arte, plazer oihu luze batekin. Elenak bultza egin zion, eta jarrera bera hartu zuen. Baina afrikarra neka-neka eginda zegoela ikusirik, ez zen mugitu, eta gizonak indarra noiz berreskuratuko zain geratu zen.

Zakilak tente jarraitu zuen emakumearen barruan, eta itxaron bitartean, gorputza uzkuertzen hasi zen, poliki-poliki eta gozoki, orgasmoa berehala izan eta plazera bukatuko ote zen beldurrez. Une baten ondoren, gizonak gogor heldu zien haren ipurmasailei, eta gorantz bultzatu zuen odolaren tau-pada azkarrarekin jarraitu ahal izateko. Bere erritmoarekin bat egin zezan, iragarleak emakumearen gorputza makurtu, neurtu, erakarri eta bultzatu zuen; halako batean, oihu egin zuen, eta, orduan, Elena zakil hanpatuaren inguruan mugitu zen, gizonak hazia isuri zuen arte.

Ondoren, afrikarrak Leila kukubilko jarrarazi zuen bere aurpegiaren gainean, Bijouekin aurretik egin bezala, eta aurpegia hankartean ezkutatu zuen.

Leila sekula gizonik desiratu gabea bazen ere, aurretik inoiz sentitutako zirrarak harrapatu egin zuen afrikarraren mihia lantzantzen hasi zitzaionean. Atzetik har zezan nahi zuen. Jarrera hartatik mugitu, eta zakil faltsua sartzeko eskatu zion. Lau hankan zegoen Leila, eta eskatutakoa egin zuen gizonak.

Elenak eta Bijouk txunditurik begiratu zioten ageriko beroaldiaz ipurmasailak eskaintzen zituen lagunari, eta afri-

karrak atzamarka eta hozka egiten zion, zakil faltsua haren barruan mugitu bitartean. Mina eta plazera nahasi ziren Leilarengan, zakila handia baitzen, baina belauniko jarraitu zuen, afrikarra pega-pega eginda zuela, eta konbultsioka mugitu zen plazera lortu arte.

Bijou usu joan zen afrikarrarengana. Behin, sofan etzan ziren biak, eta gizonak haren bularren artean hondoratu zuen aurpegia; emakumearen usaina arnastu zuen, eta, musuka hasi beharrean, gorputz osoa usaintzeari ekin zion, animalia baten antzera: besapeak lehenik, ilea gero, hankartea azkenik. Hori egitearekin, berotu egin zen, baina ez zion emakumeari berehalakoan larrua jo.

—Badakizu, Bijou? —esan zion—. Gehiago maiteko zintuzket gutxiagotan bainatuko bazina. Zure gorputzeko usaina maite dut, baina oso arina da. Hainbeste garbiketarekin, desagertu egiten da. Horregatik desiratzen ditut horren gutxitan emakume zuriak; emakume usain indartsua gustatzen zait. Mesedez, ez zaitez hainbestetan garbitu.

Atsegin emateko, gutxiagotan garbitzen zuen bere burua Bijouk; bereziki maite zuen garbitu gabeko hankarteko usaina, esperma eta haziaren itsas usain zoragarria. Azpiko arropa harentzat gordetzeko eskatu zion gero; egun batzuetan jantzita izateko eta ondoren gizonari eramateko.

Maiz jantzi zuen kamisoi bat eramane zion aurrena, ertzetan parpailak zituen kamisoi beltz fin bat. Bijou ondoan etzanda zuela, afrikarrak aurpegia estali zuen jantziarekin, haren usainak arnasteko; liluraturik eta isilean zetzan. Haren praken azpian plazera nabarmentzen hasia zela ikusi zuen Bijouk. Eztiki makurtu zen, eta botoi bat askatu zuen, gero beste bat, hirugarrena ondoren. Prakak zabaldu zituen guztiz, eta zakila bilatu zuen, beherantz begira zegoena, galtzontziloaren azpian estu harrapatu. Berriz ere botoiak askatu behar izan zituen.

Zakilaren distira ikusi zuen azkenean, beltzaran eta leun. Eztiki sartu zuen eskua, lapurtzera balihoa bezala. Afrikarrak, aurpegia kamisoiak estaltzen ziola, ez zuen begiratu.

Zakila poliki erakarri zuen Bijouk, estutzen zuen jarreratik baretuz eta askatuz. Gorantz egin zuen zakilak, zuzen eta leun eta indartsu. Baina ahoarekin ozta-ozta ukitu bezain laster, afrikarrak zakila aldendu zuen harengandik. Zimurrez eta listuz betea zegoen kamisoia hartu, ohean luze-zabal jarri, eta gainean etzan zen; zakila jantzian hondoratu zuen, eta gorputza igurtziz gora eta behera mugitu zen, ohean zetzana Bijou balitz bezala.

Bijou txunditurik geratu zitzaion begira, ohe-atorraren gainean bere burua nola estutzen zuen eta emakumeari ez ikusia nola egiten zion. Gizonaren mugimenduek berotu egin zuten. Halako eroaldiak hartu zuen afrikarra non izerditan baitzegoen, eta animalia usain hordigarria zerion haren gorputz osoari. Bijou gainean etzan zitzaion. Emakumearen pisua atzealdean zamatu zuen, jaramonik egin gabe, eta kamisoiauren aurka mugitzen jarraitu zuen.

Mugimenduak azkartzen zituela konturatu zen. Gero bat-batean geratu zen. Jiratu, eta Bijou biluzten hasi zen, oso gozoki. Emakumeak pentsatu zuen kamisoian interesa galdu eta amodioa eginen ziola. Galtzerdiak kendu zizkion, eta galtzariak haragi biluzian utzi. Gorputzaren kontaktuagatik oraindik ere bero zegoen soinekoa kendu zion burutik. Atsegin emateko, Bijouk kulero beltzak zeramatzan. Poliki-poliki jaitsi zizkion, eta erdibidean geratu zen, azaleratzen ari zen haragi bolikarari begiratzeko, ipurdiaren zati bati, ibar hondoratuaren hasierari. Hor eman zion musu, arrakala gozagarritik mihia pasatuz, kuleroak beherantz bultzatzen zituen bitartean. Kuleroak izterretatik behera zeramatzala, ez zuen zokorik musurik gabe utzi, eta zetak beste esku bat zirudien Bijouren haragian.

Kuleroak guztiz kentzeko hanka bat igo zuenean, gizonak aluaren barrualdea ikusi ahal izan zuen, oso-osorik. Musu eman zion, eta Bijouk beste hanka altxatu zuen, biak gizonaren sorbalden gainean pausatzeko.

Eskuan kuleroak hartu, eta emakumea musukatzen jarraitu zuen, umel eta intzirika jartzerraino. Orduan, atzera



jiratu zen, aurpegia berriz kuleroetan eta kamisoian hon-doratzeko, eta zakila emakumearen galtzerdietan bildu, eta sabelaldearen gainean luze jarri zuen zetazko soineko bel-tza. Bazirudien arropak esku batek adina hunkitzen zutela. Kitzikapenak aztoratu zuen.

Bijou ahoarekin zakilari heltzen saiatu zen berriz, eta eskuekin gero, baina gizonak uko egin zion. Biluzik eta gose-ti etzan zen haren ondoan, gizonaren plazerari beha. Tenta-garria eta krudela zen aldi berean. Gainontzeko gorputz-ata-lak musukatu zizkion, baina gizonak ez zion erantzuten.

Arropak laztantzen, musukatzen eta usaintzen jarraitu zuen gorputza dardarka jarri zitzaion arte. Buruz gora etzan zen, deusek inguratzen edo eusten ez zion zakilak airea astintzen zuela. Goitik behera zeharkatzen zuen plazerak, kuleroei hozka egiten zien bitartean, murtxikatzen zituen bitartean, eta denbora osoan izan zuen Bijou zakil zuta ahotik hurbil, nahiz eta eskuraezin. Azkenean, zakilak bor-tizki egin zuen dar-dar, eta, apar zuria puntan agertu bezain laster, Bijou haren gainera presatu zen, azken zurrustak bil-tzeko.

Bijou eta afrikarra elkarrekin zeuden arrats batean, ema-kumeak gorputzaren bidez gizonaren arreta bereganatzen alferrik saiatu zen batean, zera esan zion suminez:

—Begira, bulba gehiegi garatuko zait zure etengabeko musu eta hozkadengatik; titiburuak balira bezala zapaltzen dizkidazu ezpainak, eta luzatzen ari zaizkit.

Erpuruaren eta hatz erakuslearen artean hartu zituen ezpainak, horiek arakatzeko. Lore baten petaloen gisan zabaldu zituen.

—Zulatu, eta belarritako bat zintzilikatzen ahal dugu, hala egiten dugu Afrikan. Hori egin nahi diet zureei.

Bulbarekin jolasean jarraitu zuen. Laztanaren azpian zurruntzen ziren, eta ertzetatik hezetasun zuria ateratzen zela ikusi zuen, olatu txiki baten apar leunaren gisan. Gizo-na berotu egin zen. Zakilaren muturrarekin ukitu zuen isu-ria, baina sartu gabe. Bere herrialdeko emakumeei egiten

zieten moduan, ezpainak belarri-gingilen antzera zulatu eta urrezko uztai txiki bat zintzilikatuko zielako ideia horrekin tematu zen.

Bijouk ez zuen uste benetan ari zenik. Gizonaren arre-taz gozatzen ari zen. Baina, orduan, ohetik altxatu eta orratz baten bila joan zenean, Bijou oldartu, eta handik ihes egin zuen.

Amorante gabe geratu zen. Euskaldunak Bijou berotzen jarraitzen zuen, harengan mendeku desira biziak pizten. Gizona engainatzen zuenean baino ez zen zoriontsu.

Kaleetan gora eta behera ibiltzen eta kafetegietara joaten zen, gose eta jakin-min nahasketa batez; zerbait berria nahi zuen, aurretik sekula sentitu gabeko zerbait. Kafetegietan esertzen zen, eta uko egiten zien gonbidapenei.

Gau batean, kaietara eta ibaira zeramatzan eskaileak jaitsi zituen. Hiriko alde horretan kale-argi garaietatik zetorren argia oso ahula zen, baina ez zegoen besterik. Trafikoaren zarata ez zen apenas entzuten.

Amarratutako gabarrek ez zuten argirik, segur aski gaueko ordu horietan bidaiariak lotan egonen zirelako. Harrizko horma baxu batera heldu zen, eta ibaiari begiratzeko geratu zen apur batez. Horman bermatu zen, uretan islatzen ziren argiek liluraturik. Orduan, den ahotsik ederrena entzun zuen belarrira hizketan, segituan xarmatu zuen ahotsa.

—Ez mugitu, arren. Ez dizut minik emanen, baina jarraitu zauden lekuan —esan zion.

Hain zen ahotsa sakon, aberats eta fina, non kasu egin baitzion eta burua apur bat baino ez baitzuen jiratu. Ongi jantzitako gizon garai eta erakargarri bat ikusi zuen atzean zutik. Irribarre egiten ari zen argi ahulean, hazpegi atsegin, xarmagarri eta sotil batekin.

Orduan, hormaren kontra bermatu zen gizona ere.

—Zu hemen aurkitzea, modu honetan, nire bizitzako obsesioetako bat izan da —esan zion—. Ez dakizu zer eder

zauden, bularrak hormaren kontra zapalduak, soinekoa atzealdean labur, eta zer hanka ederrak dituzun.

—Lagun anitz dituzu zuk, ziur —esan zion Bijouk, irribarez.

—Ez zu nahi zaitudan bezainbeste nahi izan dudan inor. Arren eskatzen dizut, ez zaitez mugitu.

Bijou jakin-minez zegoen. Ezezagunaren ahotsak liluratu zuen, eta orain haren ondoan zetzan trantze moduko batean. Gizonaren eskua nabaritu zuen hankaren gainean, eta soinekoaren azpian eztiki mugitzen zuela.

—Behin, bi zakur ikusi nituen jolasean —esan zion laztantzen zuen bitartean—. Zakurretako bat hezur bati hozka ari zen, eta besteak egoera probestu zuen atzetik hurbiltzeko. Hamalau urte nituen. Zakur haiek ikusteak basaki kitzikatu ninduen. Ikusten nuen lehenengo sexu-eszena zen, eta kitzikapena aurrenekoz sentitu nuen. Orduetik, zu bezala makurtutako emakumeek baino ez dute nigan desira piztu.

Eskuak Bijou laztantzen jarraitu zuen. Haren aurka estutu zuen pixka bat, eta, esaneko nabaritu zuenez, emakumearen atzera lerratu zen, gorputza berearekin estaltzeko. Bijou ikaratu egin zen bat-batean, eta besarkada hartatik ihes eginen saiatu zen. Baina gizona ahaltsua zen. Azpian harrapatu zuen, eta gizonak aski izan zuen Bijouren gerria apur bat gehiago tolestearekin. Bortxaz bultzatu zizkion burua eta besoak hormaren gainera, eta gona igo zion.

Orduan ere, Bijouk ez zeraman azpiko arroparik. Gizonak oihu mutua egin zuen. Bijou baretzen zuten desirazko hitzak xuxurlatzeari ekin zion gizonak, baina aldi berean makurtuta jarrai zezan eusten zion, erabat menderatzen. Bizkarraren aurka sentitzen zuen gizona, baina oraindik ez zion larrua jotzen ari; emakumearen gorputza berearen aurka ahalik eta estuen zapaltzen zuen. Bi hanken indarra sentitzen zuen Bijouk, eta inguratzen zuen ahotsa aditzen, baina besterik ez. Orduan, zerbait leuna eta beroa sentitu zuen bere aurka, alua zeharkatu ez zion zerbait. Handik gutxira, hazi beroa zuen nonahi. Gizonak Bijou askatu eta korrika alde egin zuen.

Leilak Bijou zaldian ibiltzera eramán zuen Boiserá. Leilak oso itxura ederra zuen zaldi gáinean: lirain, maskulino eta harroa. Bijou erakargarriago zegoen, baina baita traketsago ere.

Boisen zaldian ibiltzea zoragarria zen. Jende dotorea-ekin topo egiten zuten, eta egurrezko bide bakartuetatik luzaroan ibiltzen ziren. Noiz edo noiz, kafetegi baten ondolik igarotzen ziren, han atseden hartu eta zerbait jan baitzitezkeen.

Udaberria zen. Bijouk zaldian ibiltzen ikasteko hainbat saio egin zituen, eta orain, lehenengoz, bere kasa ari zen. Poliki ibiltzen ziren, hitz eta pitz bide osoan. Ondoren, Leila lauhazka hasi zen, eta Bijou atzetik joan zitzaion. Tarte batez lauhazka ibili eta gero, abiadura moteldu zuten; aurpegiak gorrituta zituzten.

Bijouk narritadura gozagarri bat sentitu zuen hankartean, eta berotasuna ipurmasailetan. Bere buruari galdetu zion Leilak gauza bera sentitzen al zuen. Ordu erdia geroago, kitzikapena handiagoa zen. Begiak dir-dir zituen, ezpainak umel. Leilak miresmenez begiratu zion.

—On egiten din zaldian ibiltzeak —esan zion.

Haren eskuak segurtasun dotore batez heldu zion zaha-roari. Eskularruek estu markatzen zizkieten hatz luzeak. Gizon alkandora eta mahuka-bikiak zeramatzan. Zaldian ibiltzeko ohiturak gerriaren, bularren eta ipurmasailen liraintasuna nabarmentzen zion. Bijouk oparotasun handiagoz betetzen zuen zeraman arropa. Bularrak tenteak zituen, eta gorantz begiratzen zutela zirudien, modu probokatzaillean. Ilea haizean aske kulunkatzen zen.

Baina, hara, zer-nolako berotasunak zeharkatzen zizkion ipurmasailak eta hankak! Alkoholarekin edo ardoarekin gorputza igurtzi ziotela eta masajista aditu batek esku-zarta leunak eman zizkiola zirudien. Jarlekuan igotzen eta erortzen zen aldiro kilima zoragarriak sentitzen zituen. Leilak haren atzetik ibiltzea maite zuen, eta gorputza zaldi gáinean nola

mugitzen zen begiratzea. Oso ikasia ez zenez, Bijou aurrera makurtzen zen jarlekuan, eta horrela, zaldian ibiltzeko praxek bistan uzten zizkioten ipurmasail biribil eta sendoak, baita neurri ederreko hankak ere.

Zaldiak bero ziren, eta izerditan hasi ziren. Usain sakona zerien, emakumeen arropetan itsatsi zena. Leilaren gorputzak gero eta arinagoa zirudien. Urduri heltzen zion zaharoari. Berriz ere lauhazka jarri ziren, bata bestearen ondoan oraingoan, ahoak erdi zabalik eta haizeak aurpegiak laztantzen ziela. Hankek zaldiaren saihetsei gogor heltzen zietela, Bijouk gogoratu zuen nola zamalkatu zen behin euskaldunaren sabelaren gainean. Zutik jarri zen gero, oinak gizonaren bularra zapaltzen, eta hark sexu-organoak zuzenean ikusteko moduan; jarrera horretan egonarazi zuen euskaldunak, begiak ase arte. Beste batean, gizona lau hankan jarri zen lurrian, eta Bijou bizkar gainean eseri, eta min emanarazten saiatu zen, belaunekin saihetsak zapaltzean egiten zuen indarraz. Urduri barre egiten zuela, segitzeko adoretu zuen euskaldunak. Bijouren belauinak zaldi gainean dabilen gizon batenak bezain indartsuak ziren, eta horrek hainbeste kitzikatu zuen euskalduna, non gela osoan ibili baitzen katamarka, zakila zut.

Noiz edo noiz Leilaren zaldiak buztana igotzen zuen lauhazkaren abiadurarekin, eta ondoren bere gorputzaren aurka astintzen zuen kementsu, eguzkipean ile distiratsuak erakutsiz. Basoaren alderik sakonenera heldu zirenean, emakumeak geratu, eta zaldietatik jaitsi ziren. Txoko goroldiotsu batera eraman zituzten zaldiak, eta atsedean hartzeko eseri ziren. Erretzen hasi ziren; Leilak zaharoa zeukan oraindik eskuan.

—Ipurmasailak sutan utzi zizkidan ibilaldiak —esan zuen Bijouk.

—Ea, erakutsi —esan zion Leilak—. Lehenengo aldia izateko, gutxiago ibili behar geninan. Erakutsi nola ditunan.

Bijouk poliki lasaitu zuen gerrikoa; prakak askatu eta apur bat jaitsi zituen, Leilak ikus zezan zertxobait jiratzen zen bitartean.

Leilak bere belaunen gainean etzanarazi zuen:

—Erakutsi ongi –guztiz jaitsi zizkion prakak, ipurmasailak oso-osorik agerian uzteko. Bijou ukitu egin zuen.

—Min ematen din? –galdetu zion.

—Ez, bero zauden, besterik ez; txigortu izan balizkidate bezala.

Leilaren eskuak ipurmasail biribilak estali zituen.

—Gaixoa! –esan zuen—. Mina dun hemen? –eskuak beherago egin zuen, praken barrura, hankartean sakonago.

—Bero zagon hor, sutan –esan zuen Bijouk.

—Kendu prakak, baretuko zain horrela –esan zion Leilak, prakak beherago jaitsiz eta Bijou oraindik ere hanken gainean zuela, atzealdea agerian.

—A zer azal ederra dunan, Bijou. Argia harrapatu, eta distira zarion. Haizeak baretu egingen din.

Bijouren hankarteko azala laztantzen jarraitu zuen, katakumea balitz bezala. Prakek hura guztia estaltzeko mehatxatzen zutenean, atzera urruntzen zituen.

—Oraindik ere sutan zagon –esan zuen Bijouk, geldi.

—Sutan jarraitzen badu, beste zerbaitekin saiatu behar ko dinagu –erantzun zion Leilak.

—Egidan nahi dunana.

Leilak zaldiaren zaharoa altxatu, eta erortzen utzi zuen, hasieran ez oso gogor.

—Horrek are gehiago berotzen nain –esan zuen Bijouk.

—Bero nahi haut, Bijou, bero nahi haut hor behean, jasan dezakenan beroen.

Bijouk ez zuen zirkinik egin. Leilak berriz erabili zuen zaharoa, oraingoan marka gorria utziz.

—Oso bero zagon, Leila.

—Sutan nahi haut hor behean –esan zuen Leilak—, gehiago ezin dunan arte, jasangaitza egiten zainan arte. Ondoren, musu emanen zionat.

Berriz jo zuen, eta Bijou ez zen mugitu. Apur bat gogorago eman zion.

—Beroegi zagon, Leila, musukatu –esan zuen Bijouk.

Leila makurtu, eta musu luze bat eman zion ipurmasailak sexu-ataletan hondoratzen ziren tokian. Ondoren, berriz zaplaztekoak eman zizkion Bijouri. Eta beste behin. Bijouk ipurmasailak uzkurtu zituen, min emanen balio bezala, baina plazer sutsu bat sentitzen zuen.

—Eman gogor —esan zion Leilari.

Leilak hala egin zuen; ondoren, zera esan zion:

—Niri egin nahi didan?

—Bai —esan zuen Bijouk; altxatu egin zen, baina ez zituen prakak igo.

Goroldio freskoan eseri zen, Leila hanken gainean jarra-razi, botoiak askatu, eta joka hasi zitzaion, hasieran eztiki, baina gogorrago ondoren, zartada bakoitzarekin Leila uzkur-tzen eta zabaltzen jartzeraino. Ipurmasailak gorri eta sutan zituen.

—Arropak kendu eta zaldi batean ibil gaitezken elkarre-kin —esan zuen.

Biluztu eta zaldi baten gainera igo ziren biak. Jarlekua bero zegoen. Gorputzak estutu zituzten; Leilak, atzean, Bijouren bularren inguruan jarri zituen besoak eta sorbal-da musukatu zion. Jarrera horretan ibili ziren tarte batez, zaldiaren mugimendu orekin jarlekua emakumeen aluen kontra igurzten zutela. Leilak Bijouren sorbaldari hozkaka ari zitzaion, eta, noiz edo noiz, Bijou jiratu, eta Leilaren titi-buruari hozka egiten zion. Goroldio-ohera itzuli, eta arropak jantzi zituzten.

Bijouk prakak guztiz jarri aurretik, klitoria musukatzeko gerarazi zuen Leilak; baina Bijouk ez zuen sutan zituen ipur-masailak besterik sentitzen, eta Leilari eskatu zion narrita-dura harekin nolabait buka zezala.

Leilak ipurmasailak laztandu zizkion, eta berriz erabili zuen zaharoa, gogor erabili ere, Bijou zartada bakoitzarekin uzkurtu baitzen. Leilak esku batekin ipurmasailak zabaldu zizkion, zaharoa ipurmasail artean eror zedin, hor, irekigune sentiberan; Bijouk oihu egin zuen. Leilak behin eta berriz jo zuen leku berean, Bijou dardarka jarri arte.

Ondoren, Bijou jiratu, eta Leila gogor jo zuen, haserre, bero-bero bai baina asegabe zegoelako, sutan baina sentsazio harekin bukatu ezinik. Laguna jotzen zuen aldiro hankarte taupadaka sentitzen zuen, Leilari larrua jotzen ariko balitz bezala, bere gorputza zeharkatzen. Biak ala biak gorritasunera eta amorrura heltzeraino joka aritu eta gero, bata bestearen gainean etzan ziren, eskuekin eta mihiekin, plazeraren argitasun distiratsuenara heldu ziren arte.

Piknikean joatekoak ziren guztiak: Elena, bere amorante Pierre, Bijou eta euskalduna, Leila eta afrikarra.

Parisen kanpoaldeko lekuren batera abiatu ziren. Sena ondoko jatetxe batean bazkaldu zuten. Autoa itzalean utzi ondoren, basoaren barrualdera egin zuten oinez. Hasieran, taldean ibili ziren, baina gero Elena atzean geratu zen afrikarrarekin. Emakumeak zuhaitz bat igo nahi zuela erabaki zuen bat-batean. Afrikarrak barre egin zuen, pentsatu baitzuen ez zela gai izanen.

Baina Elenak bazekien nola egin. Trebetasun handiz jarri zuen oina adarrik baxuenean, eta gora hasi zen. Afrikarra zuhaitzaren oinetan geratu zen, emakumeari beha. Gorantz begiratzen zuenean, soinekoaren azpialdea ikus zezakeen. Oskol-koloreko azpiko arropa zeraman, arrosa, estua eta laburra; beraz, gora egiten zuela, hanka eta izterren zati handi bat zituen agerian. Afrikarrak geldi zirauen, emakumeari barre egiten eta zirikatzen, zakila tentetzen hasten zitzaion bitartean.

Elena zuhaitzean aski gora zegoen jada. Afrikarrak ezin zion segitu, pisuegia eta handiegia baitzen lehenengo adarrean bermatzeko. Egin zezakeen bakarra hori zen, behealdean eseri, hari begiratu eta erekzioa gero eta indartsuagoa egiten zela nabaritu.

—Zer opari eginen didazu gaur? —galdetu zion gizonak.

—Hau! —esan zuen Elenak, eta gaitaina batzuk bota zizkion.

Adar batean eseri zen, eta hankak kulunkatzeari ekin zion.



Orduan, Bijou eta euskalduna agertu ziren Elenaren bila. Bi gizonak Elenari begira zeudela ikusita, Bijou, zertxobait jeloskorturik, belarretan etzan, eta zera esan zuen:

—Zerbait sartu zait arropa artean, ze beldurra!

Bi gizonak harengana hurbildu ziren. Bizkarra erakutsi zuen lehenik, eta euskaldunak soinekoaren azpira eraman zuen eskua. Ondoren, aurrealdean sentitzen zuela esan zuen, eta afrikarrak ere soineko barrura irristatu zuen eskua, bularren azpian bilatzeko. Aldi berean, Bijouk benetan nabaritu zuen zerbait mugitzen zela bere sabelaldean, eta oraingoan gorputza astindu, eta belarrean iraulkatu zen.

Bi gizonak lurrean zetzan emakumeari laguntzen saiatu ziren. Gona altxatu zioten, eta miatzen hasi ziren. Satinezko azpiko arropa zeraman, erabat estaltzen zuena. Kuleroen alde bat askatu zuen euskaldunarentzat, zeinak, guztien iritziz, eskubide gehiago baitzuen emakumearen gune sekretuak arakatzeko. Horrek afrikarra kitzikatu zuen. Bijou buruz gora jarri zuen nahiko bortizki, eta gorputzari zapaladak ematen hasi zitzaion, hau esanez:

—Honek hilko du, edozer dela ere!

Euskalduna ere Bijouren gorputza haztatzen ari zen, goitik behera.

—Biluztu behar duzu –esan zuen azkenean–. Ezin da besterik egin.

Biek lagundu zuten biluzten, belarretan etzanda zegoe-la. Elenak zuhaitzetik begiratzen zien, eta beroa eta kilimak sentitu zituen; lagunaren lekuan egon nahi zuen. Bijouk, biluzik zegoenean, hankartean eta pubiseko ileen artean miatu zuen, baina alferrik, eta berriz jantzi zuen azpiko arropa. Baina afrikarrak ez zuen guztiz jantzita ikusi nahi. Kaltegarria ez zen intsektu txiki bat hartu, eta Bijouren gainean jarri zuen. Hanketan gora egin zuenean, Bijou belarretan iraulka hasi zen berriro, gainetik kentzeko ahaleginetan, baina eskuekin ez ukitzen saiatuz.

—Kendu, kendu! –egin zuen oihu, gorputz ederra bueltaka zuela, intsektuak zapaltzen zituen zoko oro agerian

utziz. Baina gizonek ez zuten salbatu nahi. Euskaldunak adar bat hartu, eta intsektua kolpatzen hasi zen. Afrikarrak beste adar bat hartu zuen. Zartadak ez ziren mingarriak; doi kilimak egiten eta apur bat erretzen zuten.

Orduan, afrikarrari Elena etorri zitzaion gogora, eta zuhaitzera hurbildu zen.

—Jaitsi! —esan zion—. Lagunduko dizut; oin bat sorbaldan jartzen ahal didazu.

—Ez naiz jaitsiko —erantzun zion Elenak.

Afrikarrak erregutu zion. Beherantz egiten hasi zen, eta azken adarrera heltzear zegoela, afrikarrak hankatik heldu, eta bere sorbaldaren gainean jarri zuen. Irristatu egin zen orduan, eta halako moldez geratu zen non hankek gizonari lepoa inguratzen baitzioten eta alua haren aurpegiaren aurka baitzuen. Afrikarrak emakumearen usaina arnastu zuen estasi betean, besoekin gogor heltzen ziola.

Soinekoaren bitartez Elenaren alua usaintzen eta sentitzen ahal zuen, eta jarrera horretan iraunarazi zuen, arropak hozkatzen zituela eta hankei heltzen ziela. Emakumea ihes egiten saiatu zen, afrikarraren bizkarrean joka eta astintzen.

Orduan, Elenaren amorantea agertu zen, ilea basa, afrikarrak modu hartan helduta zuelako haserre bizian. Elenak alferrik azaldu zion irrist egin eta gizonak erorikoa saihesteko gainean hartu zuela. Haserre jarraitu zuen, mendeku gosez. Bikotea belarretan ikusi zuenean, haiekin elkartzen ahalegindu zen. Baina euskaldunak ez zuen nahi inork Bijou ukitzerik; adarrekin Bijouren gorputzean joka jarraitzen zuen.

Han etzanda zegoela, zakur handi bat agertu zen zuhaitz artetik, eta Bijouri hurbildu zitzaion. Usaintzen hasi zitzaion, plazer nabarmenez. Emakumeak garrasi egin, eta lurretik altxatzen saiatu zen. Baina zakurra gainean zuen geldi, sudurra Bijouren hankarteetan sartzear.

Orduan, euskaldunak, begitarte krudelarekin, keinu bat egin zion Elenaren amoranteari; Pierrek segituan ulertu zuen. Bijouri hanketatik eta besoetatik heldu zioten, horrela, zakurrak nahi zuen lekuan usain zezan. Gozamen han-

diz ekin zion zakurrak satinezko blusa miazkatzeari, gizon batek atsegin ez zuten miazkatuko zukeen leku berean.

Euskaldunak azpiko arropa askatu zion, zakurrak emakumea arretaz eta ongi miazka zezan. Mihi latza zuen, gizon batea baino latzagoa, luzea eta gogorra. Bizitasun handiz aritu zen miazka eta miazka, eta hiru gizonak zituen orain begira.

Elenak eta Leilak sentitu zuten zakurrak haiek ere miazkatzen zituela. Urduri zeuden. Guztiak ari ziren begira, beren buruari galdetzen zioten bitartean Bijouk plazera sentitzen ote zuen.

Hasieran, emakumea izaturik zegoen, eta bortxaz egin zion aurka. Gero, ordea, nekatu egin zen alferrik mugitzeaz eta eskumuturrak nahiz orkatilak mintzeaz, gizonak gogor eusten baitzioten. Zakurra ederra zen, ile nahasiko burua zuen, eta mihi garbia.

Eguzkiak Bijouren pubiseko ilean jotzen zuen, eta brokatu bat zirudien. Aluak dir-dir egiten zuen umel zegoelako, baina inork ez zekien zakurraren mihiagatik zen edo emakumearen plazeragatik. Erresistentzia ahuldu ahala, euskalduna jelskor jarri zen; zakurrari ostiko bat eman, eta amoran-tea aske utzi zuen.

Heldu zen egun bat non euskalduna Bijouekin nekatu eta utzi egin zuen. Ordurako, Bijou ohituta zegoen gizonaren fantasia eta jolas krudeletara, gizona bereziki ongi moldatzen baitzen hamaika gauza egiten zizkioten bitartean hura lotuta eta babesgabe izateko, hain ohituta zegoen horretara, non hilabetetan ezin izan baitzuen eskuratu berria zuen askatasunaz gozatu, eta ez zen gai izan, ezta ere, beste gizon batekin harremanik izateko. Emakumeekin ere ezin izan zuen atsegin hartu.

Posatzen ahalegindu zen, baina jada ez zitzaion gustatzen gorputza erakustea, ezta ikasleek begiratu eta desiratu zezaten ere. Alderai ibiltzen zen bakarrik, beste behin kaleetan gora eta behera.

Euskaldunak, bestetik, obsesio ohia lortzeari ekin zion.

Estutasunik gabeko familia batean sortua, hamazazpi urte zituen familiak arreba gaztearentzako andereño frantses bat hartu zuenean. Emakume baxua eta lodikotea zen, eta txukun janzten zen beti. Txarolezko bota txikiak janzten zituen, eta galtzerdi beltz oso finak. Oin txikiak zituen, bereziki kurbatuak eta puntazorrotzak.

Euskalduna mutiko ederra zen, eta andereño frantsesak berehala erreparatu zion. Biak eta arreba gaztea elkarrekin paseatzen ziren. Arrebaren aurrean ez zen haien artean gauza handirik gertatu, begirada luze sarkorrak salbu. Andereñoak orezta txiki bat zuen ahoaren ertzean, euskalduna txundituta zuena. Egun batean, horren inguruko konplimentua egin zion.

—Beste bat daukat inoiz imajina ezin duzun eta inoiz ikusiko ez duzun tokian —erantzun zion.

Mutila saiatu zen orezta non zeukan imajinatzen. Andereño frantsesa biluzik irudikatu zuen; non zegoen orezta? Emakume biluziak argazkietan baino ez zituen ikusiak. Posta-txartel bat zuen, lumazko gona labur batekin jantzitako dantzari batena. Txartelari putz egiten zionean, gona altxatu egiten zen, eta gorputza agerian uzten. Hanketako bat goratuta zuen, ballet dantzari batek nola; horregatik ikusten ahal zuen euskaldunak emakumea nola zegoen osatuta.

Egun hartan, etxera heldu bezain laster, txartela hartu, eta putz egin zion. Andereñoaren gorputza ikusten ari zela pentsatu zuen, bular lodikote eta oparoak. Orduan, arkatx batekin, orezta txiki bat marraztu zion hankartearen. Erabat kitzikatuta zegoen ordurako, eta andereñoa biluzik ikusi nahi zuen kosta ahala kosta. Baina euskaldunaren familia ugariaren aurrean arretaz jardun behar zuten. Beti zegoen baten bat eskaileretan edo logela guztietan.

Hurrengo egunean, paseoan, emakumeak musuzapi bat eman zion. Logelara joan zen; ohe gainera erori, eta musu-

zapiarekin estali zuen ahoa. Haren gorputzeko usaina arnas zezakeen. Andereñoak eskuan eramaneen egun bero batean, eta izerdia xurgatu zuen musuzapiak. Usaina hain zen bizia eta hainbeste eragin zion mutilari, non bigarren aldirako ezagun baitzuen zer zen hankartean zurrunbilo bat sentitzea. Ereizio bat zuela ikusi zuen, ordura arte ametsetan baizik gertatu ez zitzaiona.

Hurrengo egunean, paperean bildutako zerbait eman zion andereñoak. Poltsikoan sartu zuen arretaz, eta, paseoa- ren ondoren, logelara joan zen zuzenean, fardela zabaltzeko. Azal-koloreko kuleroak ziren, parpailazko ertzak zituztenak. Jantziak izanak zituen, eta haren gorputzaren usaina zuten. Mutilak aurpegia hondoratu zuen kuleroetan, eta plazerik basena sentitu zuen. Bere burua irudikatu zuen andereñoari kuleroak erantzten. Irudia bizi-bizia zenez, beste ereizio bat izan zuen. Gorputza lastantzen hasi zen, kuleroei musu ematen jarraitu bitartean, eta, ondoren, zakila igurtzi zuen haiekin. Zeta ukitzeak liluratu egin zuen. Andereñoaren haragia ukitzen zuela iruditzen zitzaion, agian, orezta txikia zuela uste zuen toki berean. Bat-batean, hazia isuri zuen, lehen aldiz, ohean iraulkarazi zuena gozamen espasmo batekin.

Hurrengo egunean, beste fardel bat eman zion. Bularre- tako bat zuen barruan. Euskaldunak zeremonia bera errepika- tu zuen. Bere buruari galdetu zion zer gehiago eman zie- zaiokeen mutila halako plazereraino kitzikatzeko.

Oraingoan fardel handi bat zen. Arrebaren jakin-mina piztu zuen.

—Liburuak baino ez dira —esan zion andereñoak—, deus interesgarririk ez.

Euskalduna lasterka joan zen logelara. Zabaltzean, ikusi zuen ertzetan parpailak zituen kortse txiki beltz bat zela, andereñoaren gorputzaren arrastoa zuena. Lokarria urratuta zegoen, tira egin zion aldi guztiengatik. Euskalduna berriz berotu zen. Oraingoan, arropak kendu, eta kortsea jantzi zuen; lokarriari tiratu zion, amari ikusia zion bezala. Oso estu zeukan eta min ere ematen zion, baina mina gozatzen

zuen. Andereñoak besarkatzen zuela imajinatu zuen, bere inguruan besoak estutzen zituela, itotzeraino estutzen. Lokarria laxatu zuenean, berriz, emakumeari gorputza askatzen ziola irudikatu zuen, eta, beraz, biluzik ikus zezakeela. Sutan jarri zen, eta segika hasi zitzaizkion askotariko irudiak: andereñoaren gerria, aldakak eta izterrak.

Gauean, arropa guztiak ohean sartzen zituen berarekin batera, horien gainean lokartzeko, eta zakila jantzietan hondoratzen zuen, emakumearen gorputzaren barruan balego bezala. Harekin egiten zuen amets. Zakilaren muturra umel zegoen etengabean. Goizean, begi-zuloekin esnatzen zen.

Andereñoak galtzerdi pare bat eman zion. Txarolezko bota beltz pare bat ere oparitu zion ondoren. Ohean jarri zituen botak. Biluzik etzaten zen emakumearen ondasun guztien ondoan, emakumearen presentzia eraikitzeko borrokan, hura desiratzen. Zapatek bizirik ziruditen. Bazirudien emakumea logelan sartu eta ohe gainean ibiltzen ari zela. Hankartean paratu zituen, eta haiei begira geratu zen. Horrela, bazirudien mutilaren gorputzaren gainean ibiltzen hasiko zela haren oin delikatu puntazorrotzekin, zapaldu eginen zuela. Pentsatze hutsak kitzikatu egin zuen, eta dardarka jarri zen. Botak gehiago hurbildu zituen. Ondoren, zakilaren muturra ukitzeko bezain hurbil jarri zuen bota bat. Horrek bortizki berotu zuen, hainbeste non txarol distiratsuaren gainera isuri baitzuen hazia.

Baina jolas hura tortura molde bihurtu zen. Andereñoari gutunak idazten hasi zen, gauean bere logelara etortzeko erregutzeko. Plazerez irakurtzen zituen, mutilaren aurrean, begi beltzak dirdirka, baina ez zuen bere lanpostua arriskuan jarriko.

Halako batean, aita gaixo zegoela-eta, etxera itzultzeko deitu zuten andereñoa. Mutilak ez zuen berriz ikusi. Emakumearenganako gose aseeginarekin geratu zen, eta arropak obsesio bihurtu zitzaizkion.

Behin, arropa guztiekin fardel bat egin, eta putetxe batera joan zen. Andereñoaren antza zuen emakume bat aurki-

tu zuen, eta arropa haiek jantz zitzala eskatu zion. Kortsea lotzen begiratu zuen, zeinak bularrak tentetzen eta ipurmasailak agerian uzten baitzizkion; bularretakoaren botoiak lotzen eta kuleroak janzten ere miretsi zuen. Azkenik, gal-tzerdiak eta botak jar zitzala eskatu zion.

Kitzikapena izugarria izan zen. Gorputza emakumearen aurka igurtzi zuen. Haren oinetan etzaten zen euskalduna, eta botaren puntarekin uki zezala erregutzen zion. Bularra ukitu zion lehenik, sabela gero, eta zakilaren muturra azkenik; irrikaz jauzi txiki bat eginarazi zion horrek, eta andereñoak ukitzen zuela irudikatu zuen.

Azpiko arropa musukatu eta neskari larrua jotzen saiatu zen, baina, hankak zabaldu bezain laster, euskaldunaren desira kolpean hil zen, zeren eta, non zegoen orezta txikia?